

ISILIK...

PEGAGOGI ALDIZKARIA

3. alea 1983 ekaina

200 pzta.

HEZIKETA BEREZIA

HENRY WALLON

ZER DUTE HAURREK IRAKURTZEKO?



MAGISTERIO ESKOLAK



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermin Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean,



Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar...., aurkituko dituzue.

elkar s.a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A

Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....



Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologo, pedagogo
eta beste.

Diseinugile:
Mikel Mendizabal.

Inprimaketa:
TXUBILLO - Donostia.

Konposaketa:
EGIA - Donostia.

Dep. Leg.:
S.S. 509/82

**GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEA**ren
ardurapean.

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketa, 12 - 8a F
Donostia
Tfnoa: 455100-22

**IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN.**

SARRERA	2
HEZIKETA BEREZIA	4
SEKSU HEZIKETAZ HAINBAT APUNTE	8
MAGISTERIO ESKOLAK	12
ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA	19
MAGISTERIO / AUKERA BAT	22
HENRY WALLON	27
BIBLIOGRAFIA	31
"MEMO"ri GUTUNAK	32
ZER DUTE HAURREK IRAKURTZEKO?	37
GÜAY DEL PARAGÜAY	41
NORA GOAZ BIDE GALDU HONETATIK?	42
BEJONDEIZUELA	43
HAURRA SORTZAILE DENEAN	44

Aspaldidanik dator auzia, eta ikusi nahian, ulertu nahian ari garelarik, aukera denak, hitz gehienak, antzerakoak iruditzen zaizkigu.

...Dohakoa, pluralista, akonfesionala, jestio demokratikoa, pedagogia aurrerakoa, euskalduna, kontratazio publikoa... denek berdina nahi dutela dirudi, denek presupostu berdinetatik abiatzen dira, baina artean, borrokak, ulertezinak, eztabaidak... denek berdina al diote?

Gobernuak nahi duela dio, baina legeak ez duela uzten, momentu honetan ez dela posible. Hortarako eta momentuan erantzun bat emate arren, EIKE eskaintzen du.

Federazioak ere, Eskola Publikoak bete beharko lituzkeen puntuak azpimarratu egiten ditu, baina momentu honetan ez dela posible esaten du.

EEPAk dioenez sare bakarra lortu behar da, eta orain ez bada honen alde borrokatzen gero zereginik ez dagoela dio.

Beste batzuk zalantzak besterik ez dituzte agertzen, ez dute ezer garbi ikusten eta ez dute posizionatzeko elementurik.

Guk, gure zalantzetan murgildurik, eta hortatik atera nahian, galdera batzuk egin nahiko genituzke:

Noiz eta zer baldintzapetan jaio ziren ikastolak? Zerbait lortu nahi zen; zai egon al ziren baldintza sozio-politikoak aldatu arte? Orain PSOEk uzten ez badu, ez bazaio Euskal Herrian Eskola Publiko Bakarra interesatzen, nork eskain dezake aukera hori Estatu mailan? Nor heldu behar da Gobernura baldintza horiek posible egin daitezten? Euskal Eskola Publiko Bakarrak izan behar dituen ezinbestezko baldintzak azpimarratzerakoan zer esan nahi da? Honek ez al du bideak eta pausoak argitzea eskatzen? Ala hori esaterakoan teoria eta praktika bereiztu nahi al ditugu eta praktika posibilista batetan sartzen al gara? EIKEk ez al ditu bi eskola (euskalduna eta erdalduna) erakarriko? Noiz batuko dira biak? Nork batuko ditu?

EIKE egiterakoan zer galdetu zaio irakaslegoari edo gurasoei? Nork galdetu die zerbait ezer egin baino lehenago?

Egoera sozio-politiko guztiek beren berezitasunak dituzte, eta horiek ez dira gehiago errepikatzen. Orain, egungo egoeran esaten dena ezin izango da berdin esan hemendik hamar urtetara, eta hori denek dakite. Gure Herrian, zerbait nahi zela esan eta handik urte batzutura zeharo aldatzea askotan ikusi dugu, eta orain ezin dugu gauza asko sinistu: PSOEk autodeterminazioa nahiko balu, ez luke inongo problemarik izango orain eskatzen dena emateko, baina hori beste momentu batetan esan zuen eta orain gezurra bihurtu zaigu. Euskal Eskola Publiko Bakarrarekin susmo berdina hartzen dugu, orain denak defenditzeko prest omen daude, baina hori eraikitzeke baldintzak eskuetan dituztenean zer egingo duten, edozeinek daki.

Euskal Eskola Publiko Bakarra gaur eta hemen. Ez bukatuta, ez berehala fusioa eginda, baina ez dezagun gauza bat esan eta bestea egin, ez dezagun nahi dugula azpimarratu eta posible ez dela esan. Ikastolak, 1955. urtean nork esango zuen posible zirenik?

Eskola Publikoa, euskalduna, pluralista... baldintza horiek guztiz osatu baino lehenago, planteiatzen eta praktikatzen hasten den Eskola da. Denen artean egiten hasten dena, erdaldunei aukera ematen diena, eskoletan eztabaidatzen dena, guraso eta irakasleen artean osatzen dena, egoera sozio-politiko bigarren mailan jartzen duena, publikoa izan nahi duena.

Hemendik, gure txoko txiki honetatik, hori aldarrikatu nahi dugu; Eskola Publiko Bakar Euskaldun hori kalean egin dadila eskoletan, denon artean; eta denon artean proiektu hori burutu ondoren, nahiaren indar hori ez duela administrazio batek zanpatuko, bestela begira eta gogora ditzagun hastapenak.

AGUR JAUNAK!!

Bo, eta hain jaunak ez zareten edo izan nahi ez duzuenoi... agur ere.

Agur t'erdi gure orrialdeetara gerturaten den orori; agur t'erdi eskola, haur eta sikopedagogiak kezkatzen zaituzten guztioi. Agur t'erdi gure aldizkaria irakurtzen duzun maisu, andereño, irakasle edo guraso horri.

Eta askorentzat sineskaitza bada ere, hirugarren alea da udako eguzki izpi ausartekin batera kaleratzen duguna. Ezin genezake gure aldizkari hau osasuntsu bizi denik esan, izan ere, sendatuko lutekeen 2.000 arpidedunetatik, 350ek besterik ez baitote eskuaz luzatu. Hala, zer esanik ez, euskal prentsa osoa jotzen duen gaitz kroniko berdinez kutsaturik daukagu gure aldizkaria ere: oinarri ekonomiko ezaren kantzerra.

Baina xurga ditzagun behingoz malkoak eta besoak zabalik har dezagun irrifartsu datorkigun uda. Uda, azkenengo ebaluaketak, larritasunak, azterketak, amaierako sprina jo beharra, notak, negar malkoak. Ekaina, uzta garaia. Hala omen. Haurrak estu, gurasoak larri, irakasleak lanpeturik. Udako lanak, txostenak eta Ministeritzaren aktak.

Giro ezagun eta aztoratzaile honetan hurbiltzen zaizue berriz ere "Isilik".

Aurreko aleen kritikak (nahiko genituzkeen baino gutxiago) entzun ondoren, zabala nahi dugun irakurlegoarentzat gustokoa gerta dakioken ale bariatu eta orekatu (gure ustez) hau prestatu dugu.

Oraingoan, eta zuen kritika eta eritziak jasotzen ez ditugun bitartean, guk interesgarritzat jotzen ditugun gaiak ikutu eta landuko ditugu. Ez gara aspertuko, hala ere, zuen laguntza eskatzen. Hainbeste kostatzen al da paper zuri

bat eta boligrafo bat hartu, eta kritikagarriak iruditu zaizkigun hitz horiek, edo beste artikulua haren ikuspegi okerra, edo eta egindako afirmazio hura puskatzea? Badakizue non gauden. Zergatik ez dizkiguzue gai berriak proposatzen? Hemengo lau kaskajok ikusten ez dugun asko egon behar du hortik zehar. Bestalde, esan beharrik ez dago, irakaskuntzaren ingurua konfliktiboa da. Zergatik, eta zertarako ezkutatu kezkatzen gaituzten auziak?

"Isilik" ek tresna bat besterik ez du izan nahi; helburu horrekin sortu zen eta horrekin dirau. Ez dira gutxi Euskal Herriko irakaskuntzak, planteaturik batzuk eta planteatzeke beste asko dituen arazoak. Hortxe, maila batetan behintzat, planteatutakoen artean sartuko litzatekeen puntu bat, arazo bat, hauzi bat eta desafio bat agian. Magisterio Eskolen etorkizuna. Nolakoak behar dute izan? Zertarako prestatu behar dute irakaslegoa? Nola erantzun behar dute Euskal Herriko berreuskalduntze prozesuari? Zein pedagogi motari erantzun behar diote? Ez dira, ez, txantxetakoak galdera hauek. Bistakoa denez, ez dira erantzun erraz sinplekin erantzun daitezkeen galderak. Hala ere, hortxe ditugu borroka horretan lanari ekin dioten profesional batzuren eritziak eta proposamenak. Izan ere "Coladero" adjetiboz hainbestetan kalifikatu (arrazoi haundiz zihur aski gehienetan) den karrera honek zeresan eta zeregin garbia izan beharko baitu, gero eta jende gehiagoren ahotan entzuten ari den eskolaren berrikuntzan. Guzti honegatik, bada, eta guk emandakoa baino askoz ere gehiago beharko duela jakin arren, eskaini diogu ale honetako gai nagusia.

Lehen, orekatua iruditzen zitzaigula alea esan dugu, eta hau zergatik diogun adieraziz, mantendu nahi genuke eritzi eta joera hau.

Besteak beste, aurreko alean "haurra eta..." deitu dugun sailean seksuaren inguruan bidali zigun Javier Gomez Zapiainek artikulua bat, eta gaiaren gaurkotasan eta interesaz jabeturik egin genion eskabidea betez datorkigu, berriz ere, zenbait puntu, kontzetu eta zeregin zehaztu eta argituz.

Ez genuen, eta halaxe genion hasera haseratik, eskola, hezketa eta irakaskuntzak oinarritzat behar duen teorizazioa guztiz baztertu nahi, eta ez dugu ale honetan ere hori ahaztu nahi izan. Horrela, eta sakontze aspergarrietan sartu gabe, ekarri nahi izan dugu, gerturatu nahi izan gatzai artikulua izen buruak dioen bezalaxe, mende honetan sikopedagogiak izan duen ikertzaile garrantzitsuenetariko bati: H. Walloni.

Hortxe ditugu, bestalde, bereiztat jotzen ditugun hoiien berdintasun erreibindikazioa laburtu eta sintetizatzen duen, "Edozein Bezala" eslogana eta poster horiek. Baina zer da heziketa berezia? Zer da integrazioa? Zertan oinarritzen da? ... Galdera hauen erantzunak bidera liezaizkigukeen pertsona aproposa topatu dugula deritzogu. Sikologoa bera, urtetan heziketa bereziaren inguruan lanean aritu den emakumea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailean ihardundakoa.

Guzti hau eta zerbait gehiago. Izan ere, ale honetan sormenari atetxoa zabaldu baidiogu berriz ere.

Bueno, baina luzatu zaigu lau letrorokoa izan nahi zuen sarrera edo aurkezpena. Har ezazue aldizkaria, eser zaitezte gerizpean aldamean errefresko bat duzuelarik, eta erruz irabazi duzuen atsedean eta lasaitasuna gozatuz, azter ezazue egindakoa. Ondoren, egin iezaizue kritika bat. Badakizue non gauden, ez dugu oraindik, ihes egiteko asmorik.

Jaunak... agur.



HEZIKETA BEREZIA: Begirada zaharrak, begirada berriak

*Nire lan mahaiaren aurrean,
ez ja zure eskubide ukazina
nire eskubidea zurekin bizitzeko baizik
aldarrikatzeko gogoia sentitu nuenean,
zurekin batera heitzeko nire eskubidea
zu ezagutzeko nire eskubidea;
ingurua aldatzen hasi zen
eta justizia usaia zuten
haize berriak usantzen hasi nintzen.*



Jazz musika entzutea, pentsamenduekin nahasten delarik... artikulu hau idazteko aproposena. Instrumentu guztien dimensio sortaileak, musiko guztiena, **denok** sar gaitezkeen mundu batetan murgiltzen hasten nau. Agian, printzipio honetan oinarriturik, denontzat, **beraientzat eta guretzat** armonikoagoa eta ez hain alienantea izan daitekeen gizarte berria osatzen has gaitezke. Iruditzen zait, guk, gure burua **normaltzat** hartzen dugunok, galtzen ateratzen garela, **bereziak** deitzen ditugunak ez ezagutzean, beraiekin batera ez hezitzean.

Elkar ezagutze nahia giza mugimendu zabal bat sortzen ari da. Horri esker gu hurbiltzen gatzate, gure buruari galderak egiten dizkiogu, erantzun berriak aurkitzen saiatzen gara, eta beraiek etxetik gero eta gehiago ateratzen dira eta historian zehar kendu dizkiegun eskubideak, oinarrizko eskubideak eskatzen dizkigute:

Konbibentzia - Heziketa - Lanpostua.

Itsuek, gorrek, paralitiko zerebralek, mongolikoek, portaeran eta apendizian problemak dituztenek, aspalditik ari dira toki bat eskatzen gure gizartean, baina gure ignorantzia onartu behar dugu eta garbi esan behar diegu: ez gaude prestakuta, ez dakigu zuekin bizitzen, ez dakigu nola hurbildu zuengana. Askotan bizi ote zareten ere ez dakigu eta horregatik gure mundua muga arkitektonikoa bihurtzen dugu, etengabe elkar urrutiratzen gaituen muga. Itsuek ulertu ezin duten eran idazten dugu, gorrek entzun ezin duten modu batetan hitzegiten dugu, gure ikasketak zuentzat ulertezina den era batetara programatzen ditugu...

Baina hurbiltze mugimendua ematen ari da, eta gero eta ugariagoak gara, "heziketa berezia" hezkuntza iraultzaren ateak ireki dezakeen bidea dela usten dugunok.

Azkenengo "Jornadas Per L'integració del País Valencia", "Collectiu de treballadors D'educació especial" deritzan taldeak antolatutako ihardunaldietan parte hartu nuen, eta bertan konfirmatu nuen kezka hau zabaltzen eta sakontzen ari dela.

Artikulu hau, ihardunaldi hauek osatzen zituzten hiru elementuetan oinarriturik zentratu nahiko nuke:

- INTEGRAZIOARI BURUZKO IHARDUNALDIK
- LANGILE KOLEKTIBOAK ANTOLATUTA
- HEZIKETA BEREZIARI BURUZ

INTEGRAZIOA

LANGILEAK HEZ. BER.

Komunikazio honen ardatzak finkatu nahiko nituzke eta **HEZIKETA BEREZIAZ** hasiko naiz:

Oso zaila da, ze betaurreko jarri behar diren kontzetu hau hurbiltzeko, nondik atera den jakiteko eta norantz doan asmatzeko, jakitea. Haurren artean mugitzen garenontzat "nocilla" hitza bezain ezaguna da, baina ez beti mundu honetan sartzen ditugunentzat onuragarria eta komodoa. Oso arruntak dira hitz hauek entzutea: haur hori "heziketa berezian" ari da. Eta zaila horren esanahia hau izatea: ume horrek izugarri molestatzen gaitu...

Kontzetu honen esanahi orokor eta osoago bat izateko, betaurreko ezberdinak jartzera gonbidatzen zaituztet, "heziketa berezia" deritzan hau, modu ezberdinetan ikusi ahal izateko.

1, 2, 3 programako Mayra parodiatuz, **Elizaren betaurrekoak** eskaintzen dizkizuet lehendabizi. Nola ikusi dituen eta zer egin Elizak, orain heziketa berezi horretako pertsonak kontsideratzen ditugunekin. Ez da irudimen haundirik behar, gaitz batzuek pertsona hauek "deabrudun" egiten zituztela, konturatzeko, ahotik aparra zeriela eta jende aurrean mugimendu arraroak egiten zituztelako. Gero bikotearen pekatuen ondorio bezala jarri zituzten, honelako haur "arraro" bat, bikoteak pekatu egin zuelako zetorren, eta pekatu egin ez bazuen egingo zituztenak garbitzeko balio zezakeen zama zen. Egun, nahiz eta eskola publikoak bere sisteman sartzeko ahaleginak egiten ari, ikastetxe pribatu eta erlijiosoetan gero eta selekzio sistema gogorragoak jartzen ari dira, denontzat izan behar duen heziketa honen mugak gero eta urrutiago jarriz.

Egia da, hurbildu dela haur hauen-gana, internatu, erruki etxe eta abarren bidez, baina hau justizia sentimentua baino karitatezkoa besterik ez da.

Bigarren eskaintza **politikoaren betaurrekoak** dira.

Politikaren betaurrekoekin historia egitea oso erraza da, ahulak, prestijioa ematen ez dutenak, inoiz ez baitira politikoen interesen barruan egon.



Historian ikus dezakegu, urte askotan zehar, ahulak amildegietatik behera botatzen zituztela, beste batzuek astoak edo mandoak bezala lan egiten zutela, beste batzuk "deabrudunak" zirela. Oso kopuru txikia zen heziketa ofizialean parte hartzen zuena, eta hau ez zen inongo problema politikoentzat. Populazioa haundituz joan zenean eta arazo grabea zutenak alde batera uztea nahikoa ez zenean, testak asmatu ziren. Binet-ek Frantzian bere test famatua atera zuenean, gobernuak zorion beroak eman zizkion, horrela heziketa ofiziala eman behar zitzaien haurrekin selekzioa egiteko aukera zuen, presupuestoak ez bairiren **denentzat** heltzen.

Ipar Amerikak ere, bere eskoletan nahi ez zituen beltzak diskriminatzeko moduak asmatu zituen. Haur zuriei egindako muestreoetatik test batzuk atera ziren eta haur beltzei aplikatu, hauek zurien maila hartu ez zutelako subnormaltzat bezala hartuak izan ziren. Beltzak, beren eskubideak eskatzen hasi zirenean konturatu ziren beren heziketa hobetzeko aitzakia hartuz egindako astakeriaz.

1. Gerra mundiala bukatu ondoren Ipar Ameriketara itzuli ziren gudariekin gertatutakoa politikaren betaurrekoekin ikus daitekeen beste gauza bitxi bat da. Sikologia eta bere inguruko dena oso azkar bilakatzen hasi zen. Berrabiltze fisikoak, sikologi terapiak, heziketa eskubidea, plangintza politikoaren interesgune

nagusi bihurtu ziren. Badakizue zergatik? Estatu Batuetako Seguritate Soziala gerratik elbarri zetozen, mutilatu... guztietaz ezin zelako jabetu eta horregatik behar beharrezkoa zen berrabiltzea. Gobernuko ekonomistak ohartu ziren errentagariagoa zela jende hau berrabiltzea, baina ez justizia zentzuaren eraginez, merkeago ateratzen zitzaielako baizik.

Gaur egun politiko batzuk hasi dira hontaz zerbait esaten, baina botoei begira soil soilik. Normalean politikoak bere mahai gainean bi gauza jartzen ditu:

Dirua = presupostua

Prestijioa = botuak

= BOTEREA

eta normalean arazoa ez da izaten nola banatu presupostu hori modu justu batetan, "nola jaso dezaket botu gehiago presupostu honekin boterean jarraitu ahal izateko", baizik.

Printzipioz behintzat, politikoari ez zaio iruditzen hiritar **guztiek** heziketa sistema egokia izateko eskubidea dutenik, eta hau esaten dut balitekeelako mitinetan hori esatea, baina gero hori ez da presupostuetan agertzen. Lehenengo "normalentzat" egiten da programazio bat, eta gero "berezi entzat" beste poltsa bat jartzen da, oso poltsa pobrea gainera.

Esaten dugunaren adibide garbia estatu mailan ematen den antolamendua dugu. HEZIKETA BEREZIRAKO INSTITUTO NAZIONALA deritzan organismo autonomo bat dago, organismo honen presidentea Sofia Erregina da, eta bertatik ateratzen dira heziketa berezia ematen duten ikastetxe eta abarretarako presupostuak. Organismo honek duen presupostua espektakulo, futbola, bingoa eta antzerakoetatik jasotzen den ehuneko hainbestez osatzen da. Presupostu hori ez da Hezkuntza Ministeritzatik, normalentzat programazioa egiten den tokitik ateratzen.

Zergatik ez da nahiko presupostu "ordinario" hori, eta dena Hezkuntza Ministeritzapean ez da jartzen? Garbi dago, ministroa justiziaren errepresentantea da, Erregina **benefizientziarena**.

Dena den, egungo politikoak badaki heziketa bereziaz hitzegiteak, sozial arazoan aurrean sensibilizatua bezala agertzeko oso errentablea dela, baina hitzak motz gelditzen dira eta ekintzek agertzen dutenez, ematen diren berrikuntzak gehiago dira ondo gelditzeko, pertsona batzuen eskubideak onartuta daudenaren adierazgarri baino.

Orain **sikologiaren betaurrekoak** eskaintzen dizkizuet.

Lurralde hontako sikologoak ohartu gara Heziketa Berezi honek dirua ematen duela, eta ikastetxe eta eskoletara sartu gara gure terapiak diagnostikoak botaz, onak eta txarrak bereiztuz. **Txar** horiei esker gabinetek montatzen ditugu, diagnostikoak egin, terapiak, ikastaroak eta noizean behin lortzen dugu teknika berriren bat eskoletara sar dadila. Horrek ez du esan nahi ikertzen ari gerala edo sikologiaren beste arlo batzuk urratzen ditugula, gehiago dirudi fakultatean ireki dituden arlo bakarra dela. Dislesiak diagnostikatu, gero terapiak egin ahal izateko edo C.I. (inteligentzia koefizientea) dela eta populazio limite bat egin. Sikologoak, boteretsu baten zerbitzuan gaude eta ezin dugu heziketa berezian gure egin beharra ondo bideratu?

Irakaslearen betaurrekoak ere baditugu hemen. Betaurreko horiek jartzerakoan nekea besterik ez dut ikusten. Haurrekin denbora gehien berak pasatzen du, inongo laguntzarik gabe eta gainera gaizki egiten duela esaten zaio. Aukera bat bakarrik gelditzen zaio geldi daudenekin, molestatzen ez dutenekin eta berak jartzen duen erritmoa jarraitzen lutenekin lan egin. Besteak, gero eta kopuru haundiagoak diren horiek, heziketa berezi hortarako haurrak dira.

Azkenik utziezadazue **ekologistaren betaurrekoak** eskaintzen. Honek lur azalean dagoen guztia ontzat hartzen du, eta natura, animalia eta bere antza dutenekin harremanetan bizi da, baina askotan ez da konturatzen albokoa ez dela bere antzekoa, muga gehiago duela, eta onartuz denok ortzadarraren koloreak bezain ezberdin garela, margo zoragarriak osa ditzakegula denon artean.

Zergatik eskaini dizkizuet betaurreko hauek heziketa berezia begiratzeko? Oso erraza. Berriz kontura gaitzen heziketa berezia oso aldatu dela, ez dagoela beti berdina, eta gaur heziketa hortan atzo ez zegoena sartzen dugula, eta bihar, gaur ez dagoena sartuko dugula. Arazo hau aztertzerakoan, jartzen ditugun betaurrekoak eragin izugarria izango dute gure plangintza eta erreibindikazioa egiterakoan.

Artikuluaren hasieran osatu dugun hirukiaren beste aldean, hitz hau aurkitzen dugu: **LANGILEAK**. Uste dut hitz hau oso aproposa dela, ez bakarrik **kontzetu** bezala, heziketa berezian sartuta dagoenarentzat, **jarrera** bezala baizik.

Ezer gutxi gehi diezaiokegu bi oinarri hain sendo dituen hitz honi: **kontzetu eta jarrera**. Dirua ateratzeko, boterea izateko edo prestijioa irabazteko heziketa berezira hurbiltzen denak, oso gutxi ajola zaiola heziketa hau adierazten du, eta bere planak bere interesen arabera aldatuz joango dira. Beharrezkoa da, egun honen arduradun direnak langile kontzetua eta jarrera izatea, beste batzuen eskubideen alde borrokan ari diren langileena, eta ez daitezela horietaz igotzeko edo eskaltzeko aprobeitza.

Azkenik, konbokatoria irekitzen zuen lehendabiziko hitza argituko dut: **INTEGRAZIOARI** buruzko ihardunaldiak.

Ez dago esan beharrik ere segun eta ze betaurreko jarri oso eritzi ezberdina izango dugula gai honetaz. Abanikoa oso zabala da: ikastetxe bereziak (gehienak), gela bereziak, gela normaletan elbarri eta mugatuaren integrazioa lantzen duten eskolak, haur "normalen" integrazioa lantzen duten ikastetxe bereziak.

Agian, integrazioa eman dadin, egin beharko genukeen lehendabiziko gauza desintegratzea litzateke. Desintegratzea aukerak egitea litzateke: hau baliagarria zait, hau ez.

Integrazioa, bere nortasunaren bilakaera armonikoa eman dadin programa egokiaz eginez, beren egoera fisikoa, sikopedagogikoa edo/eta soziala kontutan izan gabe, hezkuntza sistema berdinean haur guztiak sar-

tzea posible eta beharrezko ikusten duen filosofia da.

Integrazioa hasteak ez du esan nahi haurrak hartu eta gela normal batean sartzea (nahiz eta batzutan, batzuk kontzientziatzeko bide bakarra izan). Integrazioa hasteak, esan nahi du, edozein izan da ere haur horren problema, hezkuntza ordinarriaren sisteman onartua izango dela, hau da, presupostu berdinetan sartuko dela, eta ez beste presupostu bat asmatzea edo ikastetxe berezirik egitea. Adibide bat: Hiru seme-alaba dituen famili batetan, fisiko, psikologiko edo metaboliko arazoren bat duen laugarren bat jaiotzen da. Haur hau, bere gurasoek diru asko ez badute, benefizientziaren esku gelditzen da. Subnormalen aldeko kuestazioak, bingoa, futbola eta espektakuluen ehuneko hainbeste karitatez emango zaio eta bere heziketa programa guztiak horiekin ordainduko dira.

Agian, bere gurasoek gogor eskatzen badute, ikastetxe edo gela berezi batetan lortuko dute toki bat, baina hortarako erregu asko egin behar da, ispektoreari tabarra handia eman gela bat eman dezan, eta gero eroen pare haurrak bilatzen hasi. Hamabosteko taldeak osatu ahal izateko, bestela administrazioak ez digu inongo jaramonik egiten.

Mentalitate hau dagoen bitartean ez da integratze emango, nahiz eta hiru aurretzat gela bat ireki edo berrabiltzeko bekak lortu. Alferrik da. Integrazioa, administrazioak, sistema injustu baten pisua gainetik kentze arren erabiltzen duen hitz goxoa izango da.

INTEGRATZEA EZ DA HELBURUA, EZ DA PEDAGOGI ETA SOZIAL EGOERA TXAR BATERANTZUNA, GIZARTEA BENTAN ALDATU NAHI BADUGU HEZKETA BERRIKUNTZA SERIO ETA KOERENTE BAT HASTEKO BEHARREZKO GALDERA BAIZIK.

Pentsa ezazue, momentu bat besterik ez bada ere, ze gizarte eredu izango genukeen heziketa konbentzientzia osoan heziak izan bagina, denak kontutan izanik, bilakaera globala kontutan izanik eta ez bakarrik gorputzaren alderdi bat.



Hasieran jarritako oinarriko hirukia hartuz:

INTEGRAZIOA

LANGILEAK HEZIKETA BEREZIA

Eta Heziketa Berezia begiratzeko erabil daitezken betaurreko ezberdinak hartuz, galdera batzuk idatzi nahi nituzke, ez inkesta gisa, gure irakurketa pasiboa izan beharrean aktiboa izan dadin baizik, eta kontzetu hauek onartuak edo ukatuak izan daitezzen eta eztabaida gai bihurtu dezazuen (zuen lankideekin nahiz aldizkari honekin).

1. Ba al dago itsuren bat zure eskolan?
2. Ba zenekien paralitiko zerebral batzuk C.I. normala baino altuagoa dutela?
3. Sentitu edo somatu duzu inoiz haur mongoliko baten maitasun kapazitatea?
4. Istripu bat izango bazenu eta elbarri geldituko bazina, egun dauden arkitektoniko mugak desager-tzea nahiko zenuke?
5. Gor bat entzuteko duzun pazientzia, menperatzen ez duzun hizkuntza bat hitzegiterakoan zurekin eukitzea nahiko zenukeena bezain haundia al da?

Tere Casillas Etxebarria
1983ko Maiatzak



SEKSU HEZIKETAZ HAINBAT APUNTE

Hasteko esan beharko genuke, seksu heziketa ezin dela inoiz izan eduki batzuen programazio zurruna. Seksualitatea, beste edozer gauza baino lehenago bibentzia bat da. "Seksudun izatea bizitzeko modua" bezala defini genezake. Dena den, seksua bizitzeko modu asko dagoela ukazina da, ez baitago bide bat eta bakarra.

Seksu, bakoitzak modu ezberdin batetan bizi du. "Bakoitzaren seksu prozesuaren arabera" dago. Seksu prozesu hau maila eta faktore ezberdinek osatzen dute: kromosomiko mailak, hormonalak, afektiboak, giza mailak, etab. Bakoitzaren bio-

grafiak, bizitzak eta esperientziak batu eta bereizten ditu maila hauek. Horrela, seksua bakoitzarentzat ezberdina.


Lehendabiziko planteamentu hau oinarrikoa izango da seksu heziketa eratzerakoan.

"Seksofobikoa" deituko niokeen gizarte batetan bizi gara, hau da, sexuari eta seksu susmoa duen denari beldurra zaio. Seksualitatea oso arriskutsua den zerbait bezala hartzen da, gizarteak, seksu moralak onartu edo "seksua lantzeko" aukera eman arte. Seksu heziketa modu argi edo ezkutatu batetan,

eguneroko bizitzatik guretzat hain beharrezkoa den zerbaiten espresioa desagertu edo "distrainzera" zuzendua dago; seksudun garena hain zuzen.

Horrela, haurtzaroan hauren seksu jokuak edo bere gorputzaren bilatze etengabea molestoak egiten zaizkigu. Urduri jartzen gaituztelako, galdera batzuk molestoak egiten zaizkigu, nahiz eta oso garbi ez jakin zergatik izan daitekeen.

Nerabezaroan, gaztaroan, seksu espresioa arrisku haundiko meatxuekin kargatzen da. Haurdun gelditzearen beldurrak, beste edozein



aukera alde batera uzten du. Seksu heziketa beste kuestio batzuen pidez estaltzen da eta seksu aktibitatea ezin dela nolanihi egin sartu nahi da gaztearen buruan, erresponsabilitatez betetako ekintza bat dela. Seksu harremanak, harremanik gabeko zerbait direla azpimarratzen da, eta "konpromiso" tinko bat izan arte ezin daitezkeela eduki. Azken finean, edozein harreman moeta ukatu nahi da, arriskuak azpimarratuz eta ez dakigun ze erresponsabilitasun arraroz kargatuz.

Nerabezaro ondoren berandu izaten da edozer gauza zuzentzeko. Hemen, seksu "miopia", seksu kastratua ezkutatu edo errazionalizatu nahi izaten da.

Seksu heziketaren edozein metodologia egin baino lehenago kontutan izan behar diren puntu batzuk azpimarratuko ditugu:

Bakoitzaren biografia

Aurreko artikuluan, **debeku eta permisibitatearen** artean egondako bilakaeraz hitzegiten genuen. Nagusien belaunaldiko edonor, debeku estuko garaian hezi da, seksu erpresioa gizartearen kontrola eramateko erabili den garaian.

Gure biografian, gure lehendabiziko urteekin zer ikusia duten aktibitate batzuk badaudela onartu behar dugu. Gure bizitza "desexualizatzen" ikasi dugu, edo behintzat "onartuta dauden egoeretara" mugatzen. Sexuarekin zerikusia duen dena, ezkutuaren zakuan gorde dugu. Horregatik, haur bat bere gorputza aztertzen edo ikutzen ikusten dugunean, eta egoera horretan arrotz batzuk ez bagara behintzat, ezkutuaren zaku hori mugitzen hasten da, eta horrek urduri jartzen gaitu. Horregatik, ezin da seksu heziketan pentsatu, aurretik planteiamendu pertsonal sakon bat ematen ez bada.

Bakoitzaren seksualitatea integratu, ezagutu eta onartu egin behar da, eta zergatik ez? ... landu. Zihur aski, planteiamendu hori egiterakoan eta gure baitan zer dagoen ikustean, defentsak aurkituko ditugu, defentsak eta zailtasunak, edo behintzat kezkak, beldurrak edo antsietatea. Hori izan daiteke abiapuntua; autokritika, norbera ezagutzeko eta norberaren burua onartzeko kapazitatea dugun neurrian.

Ez ditugu inoiz seksu portaera ereduak hartu behar, ez ditugu edo ez digute balio supergizonak edo superemakumeak, bakoitzak dituen nahiak eta sentitzen duena egiten duenarekin bat etortzea litzateke

helburu bakarra. Horregatik, bakoitzarentzat balio haundiena duen seksualitatea, berak bizi duena izango da. Hau, ñabartu, adierazi eta aberastuko da konpartitzen denean.

Armonia bilatzea izango da irakasle baten ahalegina eta esijentzia. Gure barnean daramagun ezkutuaren zaku hori haurrengan bota ez dezagun, eta guregan errepikatutako eskemak berriz eman ez daitezeh.

Seksuatzeko prozesua

Norbaitek zioenez, ez gara ez gizon ez emakumezkoak, gizon edo emakume "egiten" joaten gara. Nagusiok, seksu mundua, aurrez jarritako eskema batzutura itzultzeko ohitura izaten dugu. Horrela, haur baten portaera seksualak ikustekoan, normalean, ekintza horrek izan ditzakeen alderdi degradantez pentsatzen dugu, "nahiaz" eta "plazerraz" zer ikusia dutenekin, moral tradizionalaren ustetan aberranteak diren alderdiak. Oso pertsona gutxi jartzen da haurren toki eta momentuan. Haurarentzat, seksu aurrean dauden jarrerak (seksu jokua, masturbazioak, galderak...) ez du zerikusirik nagusi batek ematen dion kargarekin eta inplizito doazen balorazioekin.

Seksu heziketaren planteiamendu koerente bat egiterakoan, une bakoitzeko ezaugarriak ezagutu behar dira, eta zertan datzan ezaugarri bakoitzak. Horregatik, oso inportantea da haurren seksualitatea zer nolakoa den jakitea, ze berezitasun dituen, haurrak zer jasotzen duen, etab., berdina esan genezake nerabezaroaz, gaztaroaz, nagusi garen garaiaz edo 50 urtetik aurrera doan bizitzaz.

Jaiotzatik hil arteraino doan seksuatzeko prozesuak, adin ezberdinetan zehar seksua ezagutzera garatzen da.

Adin bakoitza ez da isolaturik dagoen garai bat, aurrekoaren araberan eta aurrekoari estuki lotuta dago. Seksu heziketaren ardura eta egin behar nagusia, seksuatzeko momentu bakoitzean dauden beharrak





erantzutea posible egingo duen giroa lortzea izango da. Behar hauek ulertzea eta errespetatzea abiapuntu egokia izan daiteke. Seksuatzeko prozesu osoa zertan datzan ezin dugu hemen aipatu, baina garbi utzi nahiko genuke hori ezagutzea behar beharrezkoa dela seksu heziketaren planteiamendu koerente bat egiterakoan. Hortarako modu ezberdinak egon daitezke, bakoitzaren bibentziak ezagutzea, aktualizatuta dagoen bibliografia bilatzea eta gure ondoan mugitzen direnen obserbatze zuzena.

Lantze Jarrera

Oraindik ere pertsona asko, ona eta txarra, normala eta anormala, sana eta patologikoaren arteko mugak bilatzen saiatzen da. Debeku giro batetan ona eta txarraren arteko mugak garbi zeuden. Permisibitate giro batetan, terminoei buelta emateko arriskuan gaude.

Garbi utzi nahiko nuke, seksualitatea faktore ezberdinen integratzea dela, biologikoenetatik nortasunaren egitura sakonenetaraino doazen faktoreak. Natura eta kulturaren arteko konfliktoaren Freudiano planteiamentuak jarraituz (konflikto honetan seksualitateak behineko tokia du), pertsona bakoitza konflikto hau

bere erara konpontzen saiatzen da. Ondorioak oso ezberdinak izango dira, bibentziak, egoera afektiboak eta biologia bera ere oso ezberdinak direlako pertsona bakoitzarengan. **Lantze jarrera** batek, konfliktoa konpontzerakoan ematen den soluzio bakoitza (nahiz eta edozein izan) konprenitu egin behar dela planteiatzen du.

Ikuspegi kritiko batetatik, kontura gaitzke, konponketa errepresio haundiaren pean egiten dela, eta horrek neurotismo sintoma asko sortzen duela.

Seksualitatearen aurrean hartzen den **Lantze Jarrerak** flesibilitatea izango du ezaugarri nagusi bezala (estutasunaren aurka), ez ditu normal eta anormalaren arteko mugak jarriko. Aurkitze jarrera izango da, bakoitzarentzat ona izan daitekenaren aurkitzea, eta hau bakoitzak neurtu eta ezagutu behar du. Beraz, adoktrinatzeko jarrerak, mutur batetatik edo besterik, seksuaren "bideratzeak", zuzentze jarrerak eta esan nahi dudak hontatik oso urrutituta daude.

Errekurtsoak

Seksu heziketa planteiamenduak egiterakoan, gehiegizko presak dagoela iruditzen zait. Badago, bere 8.mailako ikasleekin ezer egiten ez

badu hauek betirako mugatuak geldituko direla, uste duena. Presak hartutako jarrerak, kurtso bukaeran harrapatuta ibiltzea... Norbaitek hitzegin beharko die seksuaz!, koerentzia baino antsietate sentsazioak dira. Horregatik, iruditzen zait planteiamenduak lasai eta patxadaz hartu behar direla, baina ez horregatik esijentzia gutxiagoz.

Hainbeste denboran isildua eta ezkutua izan den seksualitateak, berari dagokion tokia berreskuratu behar du, momentu honetan gizarte "permititzen" duena baino harutzago joan behar du. Seksu heziketa ez da inolaz bukaera tinkoa izango duen programazio bezala hartu, "hori burutu ondoren pertsonak gara". Hasi egin behar da, bidea ireki, gure heldutasuna sakonduko duten konfliktoak sortu.

Egoera guztiek errekurtso ezberdinak ematen dizkigute. Irakaslearen trebetasunak, sormenak eta harmenak errekurtso horiek jasotzea ala ez baldintzatuko dute.

Pertsonarteko harremanak, denak denarekin zerikusia duen prozesu borobila dela uste dugu. Zerbait aldatzen denean, dena aldatzen da. Seksu heziketak, seksuaren aurkako jarrera orokorra dagoela onartuz abiatu behar du, eta denok neurri batean edo bestean jarrera horren transmititzaile garelako. Jarrera hori aldatuko duen mugimendu bat sortzea izango da helburua, horregatik, hiru mailatan eman behar da: Irakasleak, Gurasoak eta Haurrak.

Irakasleak

Ikastetxeak kuestionatu beharko du, zein toki ematen zaion seksu heziketari heziketa planteiamenduaren barruan. Honek nahastea eta antsiedadea sortzea normala izango da, nahaste hori ezezagutzetik dator. Ikastetxeak jakin egin behar du zer den seksualitatea adin bakoitzean. Zer eskaini dezakeen eskolak eta zer "gordetzen" duen. Hau lan teoriko soilak da, baina beharrezkoa. Egungo psikologiak eta seksologiak nahiko elementu eskaintzen digute.

Beste maila bat, hainbestetan aipatu dugun sarrerarena izango da. Irakasleak, beldur eta dezisio faltarekin askotan enfrentatu beharko



du. Hitzegin ahal izango al dut? Isiltzea ez al da hobe izango? Pakean utzi beharko al ditut? Ikusi ez banitu bezala geldituko al naiz? Liskar egin beharko al diet?, etab. Galdera hauek denok barnean daramatzagun oker izandako bibentzien ondorio dira. Errepremitutakoak estutu egiten gaitu eta defentsiban jarri arazi. Inportantea iruditzen zait gauza hauek taldeka planteiatzea, mailaka edo talde txikiagotan. Beldur hauek elaboratzeko errekurtsioak badaude: sikodrama, talde dinamika, talde aktibitatea orokorki. Dena esijentzi mailaren arabera dago. Horrela, zihur aski, gure beldurren iturria ezagutuko genuke eta gure aportazioa, gure "egotea", askoz ere lasaigoa eta naturalagoa izango litzateke, eta hau diapositibak baino askoz ere aberatsagoa eta baliagarriagoa da.

Eskolan eramaten den lan erritmoa ezagutu eta aztertu ondoren, iniziatiba hauek kurtsoan zehar askoz ere lasaigo planteia daitezke.

Gurasoak

Zentzu honetan eskola alderdi ezberdinen bateratze zentrua bihurtu daiteke, orokorki osasun mentala hobetu dezaketen alderdiena. Irakasleek beren jarrerak birplanteiatu behar dituztela esaten badugu, gurasoen artean, normalean, seksuaren aurkako jarrera dagoela onartu beharko dugu. Hau, beraiengan eman daitezken zailtasun eta eragozpen seksualekin lotuz, gehitu egin daiteke. Ondo dakigu seksualitatea ez dela pertsonaren beste edozein aktibitate bezala hartzen, eta kasu askotan, bikoteen arteko harremanak infernu bat bihurtzen dira.

Eskolak, bikotearen seksu aktibitateen bilakaera eta elaboraziorako errekurtsioak eskaini ditzake. Arlo honetan badago eskolari lagun diezaioketen pertsonal espezializatua. Horrek, ohizko hitzalditik aparte beste gauza batzuk eskaini ditzake: bikoteen arteko bilerak eta debateak, hauraren seksualitatea adin ezberdinetan aztertu, famili planifikaziorako dauden zentruen harremanetan jarri, etab. Horrela, eskola barnetik, kanpoko eta barruko aktibitateak osasun daitezke.

Haurrak

Orain arte esandakoarekin, eredu batzuk osatzeko aukera izan dezakegu. Nagusiaren jarrera hartzailea bihurtzen bada, aurkitze jarrera eta seksuaren elaboratzea haurraren naturalagoa izango da, nagusiak berak ere gutxiago mugatzen duelarik.

Dena dela, momentu bakoitzean zer landu behar dugun jakinda, asko ikasi dezakegula iruditzen zait. Seksu heziketak ez ditu, nahi eta nahi ez jarraitu behar diren eredu batzuk. Eskolaurrean, adibidez, oso inportantea da gorputzaren eskema jasotzea. Pertsonaren orokortasuna ulertzeko beharrezkoa den jabetze hau, oso inportantea da baita ere sexualitatean. Nahiz eta balio hori ez eman, gorputzaren eskema lantzea, seksu heziketa da; horrela, seksu heziketak bere "berezitasuna" galdu egiten du. Obserbatuz eta hartzaileak izanez, konturatuko gara haurrak zer aurkitzen duen eta gela bakoitzean ze interesgune agertzen diren. Irakaslearen sormenak, pedagogi errekurtsioak hobeto aprobeztatzea ekar dezake.

Seksuaz, gorputzaz hitzegiteko ohitura ez galtzeak, hori normal eta maiz egiteak, guzti hau ezkutatzera


eraman gaituen tendentzia hautsi dezakeen errekurtsio bakarra da. Seksuari beldurra galtzea, seksuaz hitzegitea, seksua erabiltzea, ezinbestekoa da maila "normal" batean jarri nahi badugu, pertsonaren beste edozein aktibitatearen parean jarri nahi badugu.

Momentu honetan, haurrak bere gorputzaz eta beste seksuaz ezagutze teknikoagoak eskatuko ditu. Honak, ohizko morbositateaz erantzuten bada, oso zentzu gutxi izango du, orainarte planteiatutakoa bete nahi badugu behinik behin.

Komunikazioaren bibentzial maila landuz (hitzez eta hitzik gabe), nerabezaroan planteiatuko diren beharrik integrazteko oinarriak finkatuko ditugu.

Inportantea deritzogu, planteiamendu hauen apaltasuna onartzea. Agian, ez dago gure esku seksu osasuntzearen ardura, baina zera izan behar dugu kontutan: Edo pertsonen arteko harremanak bilakatzeko modu berri batzuk lantzen ditugu, edo urritu, klasifikatu eta neurotizatzen duen sistema baten konplizeak gara. Horra hor desafioa!!!

Javier Gomez Zapiain
1983ko Maiatza





MAGISTERIO ESKOLAK

Magisterio Eskolak —edo beste modu dotore batetan esanda “Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado de EGB”— desenkantoaren ondorio besterik ez dira gaur egun. **Lehenagoko Normalak**, unibertsitario arloan sartzearekin, inongo aurrerapenik ez dela lortu konprobatzerakoan, desenkanto hau sakonagoa egiten da, eta ez bakarrik hori, egun balio ez duten egitura atzerakoi batzuen birbaieztatzea izan dela baieztatu dezakegu. Egungo helburua: **Egungo haurren irakaslea hezitzea, bihar gizon-emakume izango diren haur horien irakaslea, ezin da inolaz ere bete.**

Beren sorreratik prestijio gabeko zentruak izan badira, administrazioaren interes eza dela eta, egun, hau azpimarratu egin da, 1970. urtean Normal horien aldatzean jartzen zen ilusioa orain frustrazioa besterik ez delako.





Magisterio Eskolen analisisia

1971. urteko Ikasketa plangintzak, Eskolen heziketa sistema berri nahi izan zuen, beren unibertsitariotasuna azpimarratuz. Erdi mailako zentruak izatetik unibertsitario mailakoak bihurtzen ziren, normalki behintzat. Eta horrela, nominalki soil soilik integratu dira nahi zen unibertsitario esparru horretan. Integrazte sakon honen helburu nagusiak hauek lirake: irakasle unibertsalarek egitea, programen edukiak berriz aztertzea, eduki horiek homogeneoagoak eta sakonagoak izan zitezten, egunero aurrera doan historia honetan kokaturik, ikaslea seguru eta ez ilusio gabe ager dadin. Baina guzti hau ez da horrela eman.

Magisterio Eskoletan edukien jasotze soil azpimarratzen da, didaktika eta metodologia alde batera utziz. Gaien planteaketa-banaka arraro batzuk ez ezik eduki enziklopedikoak transmititzea izaten da, ikasleak jaso ditzan inongo ispiritu kritikorik gabe; berak bere teoria osa dezan tresna egokirik ez zaio ematen. Jarrera kritikoa, beraz, baztertua gelditzen da.

Karreraren ematen diren gaien interdisziplinarietasuna ez da inon agertzen, honek ikasleengan eragin zuzena izanik, zientziaren eta jakintzaren ikuspegi hestu eta partziala jasotzen baitute.

Pedagogi ereduak azalpen baten bidez ematen dira, kontutan izan gabe ikasleak landu eta esperimentatu egin behar dituela, behar diren ondorio batzuk atera ditzan.

Aurrekoa irakurri ondoren, errudun bakarra Eskolan, hauetan ari den irakaslegoa dela pentsa dezakegu, bere pedagogi eta zientifiko prestakuntzaren eskasian egon daitekela akatsa. Eta neurri batetan egia izan daiteke; baina azter dezagun polikiago Irakaslego Eskoletan ari den irakaslegoaren egoera.

Berak ez badu lan hori ezagutzen, oso zaila egingo zaio irakasle bati etorkizunean irakasleak izango direnak prestatzea. Lan hori modu egoki batetan aurrera eramanez ahal izateko, eskolaren errealitatea ezagutzea esijitu beharko litzaioke, obserbatuz eta aztertuz alda daitekeen errealitate baten ezagutzea. Baina Magisterio Eskola batetan sartzeko eskatzen den baldintza bakarra, eman behar duen gaien lizentziatua izatea besterik ez da. Bestalde, irakasle horrek bere arloan teoriko-praktiko erreflesioa egiteko gai izan behar du; baina dedikazio osoak suposatzen dituen 42 ordurekin; 3 edo 4 ikasle taldekin; moduloetan ordu pilo sartu behar duelarik, praktikak egiten ari diren ikasleentzako tutoria eta Eskolaren funtzionamendu minimorako behar diren bilerak direla eta, ezinezkoa bihurtzen zaio

irakasle bati erreziklatzeko astirik izatea; imposiblea egiten zaio eskolarekin inongo kontaktorik izatea eta edozein irakaslerentzat ezinbestekoa den ikertze lana, mugatu eta moztu egiten zaio.

Eskola hauen irakaskuntza unibertsitariotasunez osatzea litzateke ikertze lanaren helburua, baina arlo hau egun, ezin du irakasleak inolaz ere landu, beste arrazoen artean, "Doctor" den inor ez dagoelako ikerketa hauek zuzentzeko prest, edo ez dagoelako behar den bezala prestatuta. Gainera, nahiz eta prest egon, irakasleak ezingo luke ezer egin, nahikoa baitu klaseak eman eta praktikak zuzentzen.

Magisterio Eskoletako Departamenduek ez dute unibertsitatearekin inongo harremanik, eta normalean ez dute ezer egiten.

Zientifikoa eta unibertsitarioa izango den irakaskuntza batetaz ezin da pentsatu ere egin, Departamenduetan oinarrituta ez badago. Eta, aldiz, gure eskoletan, edukiak, esperientziak eta disziplina ezberdinen arteko harremanak, dimentsio bakarrekoak balira bezala hartzen dira, inoiz eztabaidatu eta planifikatu gabe.

Irakaslearen arazo larrienerako bat egoera laborala da. "Numerario" eta "PNN"n arteko ezberdintasunak sakondu egin dira Hezkuntza Ministeritzak argitaratutako azkenengo neurri urgenteak direla eta. Horregatik, "Agregadurías de Contrato para Interinos y Contratados" deritzaien lanpostuak eta dedikazio osokoak ateratzeak, irakasleen mailaketa haunditu egin dute, bai kalitatez, bai kantitatez, eta horrek plaza horietara heltzeko "barne gerra" bat erakarri du.

Aurreko guztiaz gainera, eskola gehienetan ez dago material didaktiko aproposik (ez aproposa eta ez ezer). Ez dago laborategirik, eta batzutan liburutegirik ere ez. Nahiz eta eskola batzuetan eskasia hau konpondu nahian aritu, gehienek defizit izugarria dute, eta inongo tokian ez dira, ez eta gutxiagorik ere Unibertsitate mailan egon daitezkeen inbentarioetara heltzen.



Guzti honetan oinarriturik, konklusio honetara hel gaitzke: "Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado de EGB" deituak, bigarren mailako instituzioak direla.

Eskola hauetan aurkitzen dugun soluziorik ez duen beste arazo bat, praktikena litzateke. Ikasleek 2. eta 3. mailan egin behar dituzte praktika hauek. Normalean eskolaurrean, hasera zikloan, erdi zikloan edo goiko mailatan egiten dituzte, hartu nahi dituzten eskola edo ikastoletan. Gehienetan, ia beti, ez dago inongo harremanik egiten ari diren praktika eta eskolan duten espezializazioaren artean, eta hau Praktika Komisiotik egin beharko litzateke. Kasu onenetan ere, praktika hauek lau hilabetekoak izaten dira karrean zehar, eta denbora hau, eskolako errealitatearekin lehendabiziko harremana izateko oso urria iruditzen zaigu.

Guzti hau dela eta, arlo bat bereziki azpimarratzea gustatuko litzaiguke. Magisterio Eskolak, OHOeko errealitatea eta irakasten dutenaren artean dagoen lotura bilatzen ez direla saiatzen esaten da (eta neurri batetan arrazoiz). Baina kasu askotan, ezinezkoa izaten da pedagogia, didaktika edo metodologia, errealitate batzutura (errealitate gogorak) egokitzea, gure ustez, egun balio ez duten presupostuetan oinarrituriko errealitatea. Analisi honekin ez dugu honek daraman gure aldetikako erresponsabilitatea gainera kendu nahi, gauzak bere tokian jarri nahi ditugu. Egia da, kasu askotan irakasle Eskolako irakasleak ez duela OHOeko errealitatea ezagutzen, baina beste batzutan, eta ez gutxitan, errealitate hori ezagutzen duelako, bere ikasleak errealitate honen benetako aldaketa posible baterantz orientatzen ditu. Eta hori ez da deskonesioa, konsekuente izatea baizik.

Analisi honetan Euskal Herriak dituen problemak, bere errealitate sozialean ematen direnak, aztertzen saiatuko gara. Irakasle izango direnak hezi nahi dituen eskola, ezin da, jaio den kontestutik at egon, eta irakasle horiek lan egingo duten errealitatetik urrutu ibili.

Magisterio Eskolen helburu nagusi bat, Euskal Herriak dituen kultural, linguistiko eta soziolojiko aberastasunak berreskuratzen saiatzea litzateke.

Kasu gehienetan, aldiz, zeregin hau Euskara Departamenduen esku gelditzen da, eta hauek nahikoa dute desagertu gabe irauteko ahalegintzen. Zeregina zaila da, eta bereziki hemen, Araban, elebidun egoerak (hizkuntza ia galduta) eta denbora luzean alde batera egon diren identitate ezaugarrien erreperaketak, dramati-koagoa bihurtzen baitu egoera. Nazionaltasuna mantentzeko eta kultura transmititzeko hizkuntza oinarritzko lokarria dela uste badugu, eta Euskal Kulturaren

zabaltzea eskolaren zeregina dela; gaurko eta biharko irakasleek euskara eta euskal kultura izan beharko dute irakatsi ahal izateko. Gauzak gaur egun dauden bezala ikusita, bai eskolan bai komunikabideetan, bide onetik doazela oso zalantzan jartzen dugu.

Azaldu dugun egoera honen ondorio lojikoak, Estatua-ren aldetik ezina eta interes eza hezkuntza berrikuntza hau bideratzeko, izango litzateke. Eskola Pribatuak aprobetxatuko du interes eza eta berak emango ditu lehendabiziko urratsak, berak deitzen duen "pedagogi berrikuntza" aurrera eramateko. Estatal eskoletan dagoen zerbitzu eskasiak, lehen zentru hauetara zetozen askok, sasiberrikuntza hori begi onez ikustea erakartzen du, honela jende horrek beren seme-alabak pribatura daramatza, hauek indartuz.

Ikaslegoaz zerbait esatea beharrezkoa iruditzen zaigu. Orain dela gutxi (Cuadernos de Pedagogía aldizkariak), Madrilgo Magisterio Eskola batetan inkesta bat egin zuen. %73ak zionez, Magisterio **bokazioz** hasi zuen. Gure ustez erantzun hau errezegia da eta horren azpian beste arrazoi batzuk ezkututzen dira: "Karrera motza", "unibertsitatera heltzeko bide motza eta errazagoa", "famili ohitura", "errazagoak diren ikasketak", "beste karrera batzutatik datozenak" ... Oso portzentaia txikiak egiten du Magisterio irakaslearen paper soziala benetan baloratzen duelako. Baina penagarriena izaten da, benetan interesatua dagoen portzentaia horrek, panorama ikusi ondoren, dezepzionatu eta alde egiten duela.

Azterketa hau, jasaten ari garen sozial krisiaren barruan bukatzen badugu, esan beharko genuke krisi hau, elementu kontserbadore gogorra bihurtu dela; ikaslea bere irteera indibidualaren atzean jartzen du, eta honela, gizartean izan beharko duen aldatzaile papera zeharo ahazten du. Horrela, "botatzen" diotena ikasten du, bere aplikapen didaktikoa ez du kuestionatzen eta akzesu zuzena edo aprobetxatua nahi du soil-soilik; irakaslea, egoera inestable honetan justifikatzen delarik, horrekin identifikatzen da, pasibo bihurtzen da, bere klaseak ematen ditu, "ahal duena" "aztertzen" du (gehienetan hortara behartu egiten dutelako) eta ez da arduratzen, ia ematen ari denak eta OHOeko errealitateak zerikusirik ba ote duten, etorkizunean irakasleak izango direnak hezitzen ari dela zeharo ahaztuz.

Errealitate honi alternatiba: 2000 urterako heziketa batetarantz

Gaur egun, gure Eskolek datorren mendeko gizarte batetarako orientatu behar al dute? Etorkizunak heziketa arloan botatzen digun desafioa jasotzeko prestatuak al gaude? Gure esperientziatik abiatuta, lehen egindako azterketan garbi gelditzen den bezala, galdera hauek


sarkastikoak bihurtzen dira, farregarriak, gaur eguneko Magisterio Eskolek sozial erritmoarekiko duten atzerapena ikusirik. Dena den, gure buruari egin behar dizkiogun galderak dira.

Hemendik 2.000 urtera hogeit hamar urte eskas gelditzen zaizkigu. Gure heziketa aktibitatea haurraren bukaeraren da, gure oraingo ikasleak heziko dituzten haurraren, eta haur hauek datorren mendean bilakatuko dute beren ekintza soziala. Sozial aldaketaren erritmoa gero eta azkarragoa da; bai gure ikasleek eta baita hauen ikasleek ere izango dituzten desafioak zeintzuk izango diren jakitea oso zaila da. Dena dela, tendentzia batzuk azpimarra daitezke, garbi daudelako edo garbi ez egon arren prebisibleak direlako, eta sozial aldaketa sakonak ematen ez badira etorkizunaren konponenteak izango direlako. Tendentzia hauen aportazioaz azterketa serioa izango da gure Unibertsitate Berrikuntzarako oinarria. Gainera, gizarteak baditu bere agente batzuk (komunikabideak, irudi mundua, zinema, telebista...) heziketa eta sozializatzean gero eta eragin haundiagoa dutenak, eta eskolaren heziketa arloan zeregina gero eta baztertuagoa uzten ari direnak. Edo etorkizunaren eskakizunetara kritikoki hurbiltzen gara, edo gero eta ondatuagoa dagoen erretaguardia ondakin bihurtuko gara.

2000. urteko soziokultural ezaugarriak

a) Zientziaren etorkizuna

Alde batetik, ezagupenaren arlo guztietan zientziak izango duen bilakaerak, gizonari, pentsatu gabeko mugetaraino prozesu sozial eta naturaletan parte hartzeko aukera emango diote, baina bestalde, zientzia, gizartearen muga sozial eta politikoak estali nahi dituen gisa, aktibitatea izanez jarraituko du. Zer arrazoin izan dezake bestela, egoera historiko honek, zientzian aurrerapen izugarriak eman eta aldi berean desegite orokor batetatik gero eta hurbilago badago? (zientifiko





bilakaera hauek kontrolatzen dituzten eliteak nahi duten eran erabiltzen ari dira aurrerapen hauek). Honen froga, aurrerapen zientifikoaren mitifikazioa litza-teke, ezagupenen espezializazio eta partzelazioaren ondorio natural bezala harturik, aurrerabidean bultzatzen duten faktore zientifiko eta politikoak gordetzen baititu. Prozesu zientifikoaren zuzentzea oso estu aukeratu eta oso jerarkizatua dagoen eliteak eramango du, eta gizarteak, masak, zientifiko prozesuaren neutraltasunean eta jakinduria honen aplikapen praktikoak berak produzitzen duen teknologian soil-soilik konkretatzen dela pentsatuz jarraituko du (pentsatu arazi egingo diote).

b) Datorren gizartea

Egungo komunikabideek eta produkzio prozesuak hartu duten formek, despertsonalizapenean, masifikazioan eta uniformetasunean oinarritzen diren konbibentzia ereduak erakarriko dituzte. Giza kolektiboaren sozializapena, goitik beherako kontrol gogorren bidez egingo da, eta honen alde ez daudenak edo eterodoksoak anikilatuak eta deseginduak izango dira.

Industrializatuta dauden herrien arteko ezberdintasunak, edo industrializatuta daudenak eta oraindik horra heldu ez direnen arteko ezberdintasunak, herri horien barruan desberdintasun haundiagoak erakarriko ditu. Langabezia, egiturak tendentzia izango da, eta ez da gutxituz joango, gero eta haundiagoa izanez baizik. Pribilejiatuak diren posizio sozialetara heltzeko sozial borrokek, eta gero eta ugariagoak izango diren talde zokoratuek, biolentzia eta sozial tentsio haundiagoa erakarriko dute.

d) Naturaren ondamena

Natura aberastasunen neurrigabeko erabilpena hasi da agortezinak uste ziren aberastasunak urritzen, bizitza naturala ezin baita erritmo berdinean birsortu. Bide hontatik, giroaren kutsadurak, mortuen hedatzeak, nuklear probek, nekazaritzan neurrigabeko kimika erabilpenak eta natura giroaren aurka egingo diren hainbeste ekintzek, bai gerra, bai produktibitatea medio direlarik, erremediaezinak izango diren eran aldatuko dute naturaren oreka.

e) Gizabanakoa

Bere buruaz, zer irudi izango du 2000. urteko gizonak? Deseginda dagoen giro material batetan aurkitzen bada, bere inizatiba ahalmena moztzen badiote, bere hiritar eskubideek ez badiote inposatuta dagoenetik at joateko inongo aukerarik ematen... eszeptizismoa eta larritasuna jabetuko dira berarengan, eta bere arazoan konponbide bat aurkitzeko inpotentzia izugarria sentitu araziko diote. Ez da harrizkoa, egun ere gertatzen ari den bezala, 2000. urteko zibilizazioan gaitz sikikoak gehitzea. Larrituta eta estututa dagoen gizonak, bere bultzaden kontrola galtzen du, ez baitu nahiko lukeen espresibotasuna emateko inongo aukerarik.

2000. urteko heziketaren helburuak

Eskolak bilakatuko dituen heziketa prozesuek, egun traiektoria posible bezala ikusten den hori asko alda dezakeela pentsatzea ez da erraza. Uste dugu, sozio-politiko kontraesanek osatuko dutela modu batetara edo bestera etorkizuna. Dena dela, zientziak eta heziketak, beren funtzioa neutralitate edo pasibitate batetara baztertzea, ez dute erraz uzten, historiaren martxan partaide izan gabe. Beraz, iruditzen zaigu, datorren historiak eskaintzen dion funtzio mistifikatzaile eta manipulatzaile hori, funtzio kritiko, sortzaile eta argitzaile batetara alda daitekeela; demokratikoak eta askatzaileak izango diren alternatibak eskainiko dituen funtzioa. Konpromiso historikoaren bide honetan, heziketaren ezaugarriak izan beharko luketen hauek laburtzen ditugu.



a) Heziketak ikasleari, bere errealitatearen ikuspegi kritiko-esplikatiboa eskainiko dio, eta honen aukera izan dezan elementuak jarriko dizkio, beste batzuek errealitate hortaz egin dezaketenez aparte, berea egin ahal dezan. Honek, eritzi eta juizioen askatasun osoa inposatuko du, eta elkarrizketa eta komunikazio giroa indartuko du ulertze orokor bat erraztuz.

b) Heziketak, giza pentsamenduak izandako lorpen kulturalak eta ezagupen aberastasunak transmititu beharko ditu, kondizionatzen duten sozio-politiko baldintzak bereziki azpimarratuz. Zientziaren aplikapen praktikoak behar orokorrenpean jarri behar direla azpimarratuko du, eta ez sozial ezberdintasuna, gerra eta autoritarismoa erakartzen dituen produkzio sistemarenpean. Heziketa moeta honek, edukien transmisio dogmatikoa ukatuko du eta errealitatean ematen diren ekintzen azalpen errelatibista, eta zientzia esperimental prozesua bezala hartuko duen metodologia bultzatuko du, ikertzea indartuz, eta informazio iturrietara eta bere erabilpenera akzesua erreibindikatzuz.

d) Aprestuzaiaren prozesu sozial eta psikopedagogikoen kondizionamenduak zeintzuk diren jakin ahal izateko balio behar du heziketak, eskolak betidanik ikasleak klasifikatzerakoan izan dituen determinismo batzuk: azkarrak eta tontoak, adaptatuak eta adaptatu gabeak, teorikoak eta praktikoak eta antzerako mailaketak, gainditu ahal izateko.

e) Heziketak, bere sozial eta internazional konpromisoaren posizionatze kritiko eta kontziente batetara bultzatuko du ikaslea, partehartzearen harreman komunitarioak indartuz, gizarteak ematen dion isolamendu eta bakardade antzua gainditu ahal dezan.

f) Heziketak ezaugarri hauek izango ditu: berdintzailea, zapalketaren aurkakoa, seksismoaren aurkakoa, zokoratzeari sensiblea, irudimena landuko du, optimista, natur giroa errespetatuko du eta bere kontserbatze orekatua defendatuko.

2000. urteko irakaslea

Aurreko atalean azpimarratzen diren heziketa helburuak lortu ahal izateko honako ezaugarri nagusi hauekin identifikatuko den irakaslea beharko da:

a) Irakasle nortasuna

Eskolan eman ohi den isolamendua gainditzeko, komunikazio eta talde lana egiteko ahalmena.

Motibatze eta sujeritze ahalmena.

Bere aukerak eskaintzeko eta ikasleenak posible egiteko ahalmena.

Bere lanaren ardura sozialaren kontzientzia; alde batetik, bere irakasle lana birsortzeko erabiltzen duen sistema baten partaide bezala, eta bestalde, bere arduraren kontzientzia izanik gertakizun sozial eta dinamizatzaile bihurtzen den faktore bezala.

b) Profesional "Curriculum" a

Aurrera eraman behar duen funtzioa betetzeko egokiak izango diren unibertsitate mailako edukiak eta arloak, mailaka edo gaika espezializatua. Hortarako beharrezkoa izango da Magisterio Eskolak, aurrekoan azpimarratu duguna lortzeko aukera eman diezaiola.

— Eman behar duen maila edo arlora egokitua egongo den psikopedagogiko eta didaktiko prestakuntza.

— Bere profesional prestakuntza jaso baino lehenago ongi antolatutako egongo diren urte beteko praktikak.

d) Irakaslearen "status" soziala

Baldintza hauek izango ditu:

— Beste edozein langilek dituen eskubide eta betebeharrak izango ditu: sindikatuzko, konbenioa eztabaizatzeko, grebarako... eskubideak.





— Administrazioari lotuta dagoenez, bere lana Altxor publikoak ordainduko du heziketa bezalako den zerbitzu publiko eta obligaziozkoak behar duen bezala.

— Bere lanbideak, guraso eta administrazioarekin batera heziketaren partaide aktibo bihurtzen du.

Magisterio Eskolen etorkizuna

Zentru hauek nola aurkitzen diren aztertu ondoren, eta heziketak etorkizunean izango dituen ezaugarriak ikusita gero, egungo Magisterio Eskolek nolakoak izan beharko duten (gure ustez), edo izan behar dituzten ezaugarri nagusiak azpimarratuko ditugu:

a) Zentru hauek betetzen duten funtzio sozialaren garrantzia baloratua eta errekonozitua izan behar da, eta beraz, ekonomi eta material dotazioak gehitu.

b) Beren irakasle plantilen laboral egoera argitu egin beharko litzateke. Dauden mailaketa eta soldata ezberdintasunak desegin, dispertsioa eta bakoitza berera joatea bai dakar honek. Horren ordean, talde lanean eta koordinazioan oinarritutako organizazio printzipioak jarri behar dira, eta ordainketa dedikazioaren arabera egin, dedikazio osoa bereziki primatuz.

d) Teknokrata ereduaren ukatzea; honek, efikazia eta errentabilitatea primatzen baititu heziketa ereduaren, agintea, jerarkizazioa, indibidualismoa, zientziaren neutralismoa, ideologiaren selektibitatea... indartuz.

e) Bereiztasun hauek izango dituen akademiko ordenamendu bat osatu:

- Ohizko azterketen (beren balioa eta "operatibitatea" ikusiz) biraztertzea.

- Informazio iturrien erabilpena, ikertzearen ohiturara, ikaslearen autonomira eta lan taldeen indartzera zuzendua izango den lan metodologia.

- Errealitate sozialaren aurrean erreflexioa eta kritikotasuna indartuko duten edukiak, errealitate horren aurrean posizionatze kritikoa bultzatuko dutenak.

- Emango diren programen planifikatze koordinatu eta interdisziplinarioa.

- Eskola instituziotik kanpo dauden heziketa errekursoak erabiltzen jakitea.

- Eta nahi eta nahi ez, minimoki kriterio hauek gutxienez jasoko lituzkeen Ikasketa Plangintza berria.

OHOeko irakasle izango direnen heziketan zuzenki inplikaturik gaudenok, gaur egungo Magisterio Eskoletarako planteiatzen ditugun ezaugarri hauek, kontutan hartu beharko genituzke (edo behintzat hori espero zitekeen). Dena den, behean izanpetzen dugunok, inertziak eta orain arte bezala jarraitzeko arriskuak

luzaro iraungo dutelaren susmoa dugu. Idatzi honetan azaldu dugunaz, "konparsa" papera bete nahi ez dutenen ekintza organizatu eta baterakoia eragin nahiko genuke; historiaren aurrerabidearekin konektatzeko aukera (2000. urtea baino lehenago) galdu duen eskola batetan ankilosatuak egon nahi ez dutenen papera.


Juan Jose Celorio

Carmen Llorente

Ildefonso Palacios

Marisa Garcia Gordobil

(Denok Gasteizko Magisterio Eskolako irakasleak)



Eskoriatzako Magisterio Eskola

ISILIK: Nola eta ze egoeratan jaio zen Eskola hau? Nortzuk bultzatuta eta noren babesean?

Jesus: 1976. urtean jaio zen, Arrasateko Hezibide Elkartearen eskutik, ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA, euskal maisu eskasiari erantzun bat emateko asmoz. Ezaguna da, alegia, diktadura garaian euskal maisu gutxi sortzen zela, orduko gazteriari maisutza berak ezagutu zuen maisuengan ikusita —arrotz, zenbait kasutan etsai, agertzen zitzaiola—. Ikastolen etorkizuna, ordea, biharko euskal eskolarena azken batean, arrisku bizian zegoen: andereñoen artean tituludunak gutxi ziren eta tituludunen artean euskaldunak, halaber, gutxi. *Euskaraz beren ikasketak egin eta, gero, gizarte elebidun honen haurrak hala hizkuntza batean nola bestean eskolatzeko gaituak izango ziren gazteak prestatzea izan zen, eta da, Eskola honen helburu nagusia.*

Ekintza honen balorapenik ezin daiteke egin urte haietan Maisu-Eskola ofizialetan nagusi zen giroa ezagutu gabe. Hona zer dion lekuko batek Ategorrietako Eskolaz mintzatzen delarik: "Gaur bertan, Donostiako NORMALA Andaluzira eramango balitz irakasle eta guzti, eta istudio programa eta guzti, andaluzak ez lirateke batere estrainatuko. Gipuzkoan dagoen NORMALA ez da gipuzkoarra, eta ez da euskalduna (...) Beraz, bada gaur euskara NORMALEan, baina ez dut ezagutu oraindik bakar bat ere ordu honi esker euskara ikasi edo eta bidea aurreratu duen ikaslerik. Beraz, ez dago euskararik NORMALEan" (J. J. GOENAGAK, Z. ARGIAren 699. alean). Uste dut merezi zuela aipamen luze hau egitea, bertan ondotoxo ikusten bait da irakaskintzak zuen premia larriari Eskola ofizialek ezin ziotela erantzun jatorrik eman: euskal indarrek, ofizialak eta "publikoak" ez ziren indarrek, alegia, zutela arazo honen giltza.

Guzti hau aldarrikatu beharrean aurkitzen gara, orduan txalotu egin gintuzten eta orain gure pribatutasuna aurpegira botatzen —eta subentzioak ukatzen— diharduten pertsona batzuren aurrean: joko erraza beraiena, eta maltzurra.

Esan beharra dago, nahiz eta egoera zerbait hobea den, oraindik ere gure Eskolak, eta bere antzekoek, badutela zereginik. Hemendik urte batzutura eman daiteke euskal irakasleengan ere erdal munduan eza gutzen dugun maisu-inflazioa: orduan, ordurako hobeto esanda, eta, nire ustez, Administrazioaren babesean, Maisu-Eskola bakoitzak bere errekurso humano eta teknikoentzat bide onuragarrienak aurkitu beharko ditu. Eta ildo honetatik lehenik bururatzen zaigun gauza irakasleen erreziklajearena da: hau bait da inoiz seriooki planteiatu ez den problema bat; urteak joan, urteak etorri, adabakiz zulo agirienak estaltzen saiatu besterik egiten ez delarik. Eta, besteak beste, garbi ikusten dut irakasleen etengabeko hobekuntza-prozesu honen ardura nagusiak Maisu-Eskolen bizkarrera joan beharko lukeela, beste hainbat erakunde pedagogikoak ere bertan esku hartzen dutelarik.





Horrela Maixu-Eskolen zeregina zabaldu egingo litzateke: beren xedea "tituludunak" ateratzea soilki ez litzatekeelarik, baizik eta, gainera, tituludun horiei urteetan zehar maisu "osoak" bihurtzen laguntzea, ikastaro, mintegi iraunkor, hitz batean, irakasle-maisu-ikasle hirukotearen artean sortuko litzatekeen mogimendu aberasgarriaren bidez. Esan nahi da, urteetako esperientziak, eta lanak, borobilduko duela Maisu-Eskolan zabaldu besterik egiten ez den prozesua.

Ikasbide hau ahanzten badugu, hau da, Maisu-Eskolen eta haur-eskolen artean ez bada dinamikarik hori sortzen, lehenak teoria antzuen eremuan agortuko direla eta bigarrenak, berriz, behin urratutako borobilduan zorabiatuko dira.

ISILIK: Nor joaten da magisterio eskoletara? Askotan esan ohi da karrera hau seriotasun gutxikoa dela, beste karreratan frakasatzen dutenak datoztela hona etab. Bestalde motz gelditzen omen da, denbora gutxi da hiru urte eta denbora gehiago beharko litzateke. Zer diozu hontaz?

Jesus: Hemen paradoxa bat ematen da. Alde batetik ezaguna da ikasle onenek ez dituztela gehienetan beren urratsak Maisutzara zuzentzen, ez Espainiko Estatuan eta ez beste herrietan ere.

"No es ningún secreto que durante varios años los alumnos rechazados por las Facultades y Escuelas Superiores así como los que no realizaban las pruebas de selección, tendían a matricularse en las Escuelas Universitarias y, más acentuadamente, en las de Formación de Profesorado de EGB ante la impotencia de los cuadros directivos de éstas..." (La Reforma de la Formación de profesores de educación general básica, MEC, Madrid 1982, 23. orr.).

"Actualmente, en la mayor parte de los países industrializados de la Europa occidental, los instructores o maestros de primaria provienen principalmente de los alumnos menos dotados de la enseñanza secundaria" (G. de LANDSHEERE, la formación de los enseñantes de mañana, Madrid 1977, 175 orr.).

Bestalde, edonon jotzen da haurren hezkuntz-prozesua gizartearen eginkizun nagusizat: gizarteak —eta hemen paradoxa— ezin du kontatu bere elementu argienekin zeregin nagusienetariko hori burutzeko. Arazoa konplexua da eta ez da nire asmoa bertan murgiltzea. Egoera zerbait alda daiteke eratu berriak diran "sarrera-azterketen" bidez. Baina, beste ikuspegi batetik —arazo hau batere errezten ez duen beste ikuspegi batetik— berez maila igotzeko pentsatuta dauden azterketa horiek, ezagupen akademikoak soilki, sarritan memoristikoko hutsak, eskatzen dituztelarik, atea itxi diezaioke arlo batzutan maisu izateko ondo jantzita dagoen hamaika gazteri.

Mugapen hauen barnean, Eskola sarrerako eskatzen dituen baldintzak honelakoak dira: gutiengo akademikoa gaintzea, euskara jakitea eta, test-en bidez soma daitekeen neurrian, desoreka psikologikorik ez agertzea. Hiru ezaugarri horiek kontuan harturik iristen gara onar dezakegun ikasle-kopurua betetzera.

Jakina da, bestalde, Estatu mailan karrera luzatzeko



asmoz dabilzala Maisu-ikasketei garrantzi handiagoa ematekotan edo. Ondo iruditzen zait, horrela maisu-gaiek benetako esperientzi pertsonala egiteko egokiera izango lukete. Pentsatu behar da horrelako urte bat oraingo Praktika edo Irakatsaioak baino askoz ere jarraituago, errealistago eta, azken batez, eraginkorragoa litzatekeela. Beste bi eragin positibo ere ikusten dizkiot laugarren urte honi:

— alde batetik ikasleak bere benetako gogo eta ahalmenak ezagutzeko une paregabea izango luke eta, ondorioz, hasieran agertzen ez ziren joera esannahitsuak ere agertuko zaizkie (ez litzateke komeniko, orduan, laugarren urtea karreraren bukaeran jartzea).
— bestalde, bere maisu-ikasketak burutzeko motibazio biziagoa izango luke, motibazio falta izanik, betidanik, ikasle hauen jarreraren ezaugarri nagusienetariko bat: ez dute ikusten, alegia, loturarik, ikasten ari direnaren eta errealitatearen artean.

Hori bai, laugarren urte honen antolaketak azpiegitura sendo bat eskatuko luke: erabat alperrikakoa suertatuko litzateke gaur egungo Irakatsaioei eskaintzen zaizkien baino begiramen eta errekurso hamaika bider handiagoak eskainiko ez balitzaizkie. Hau da, maisu-gai bat eskolara bidaltzeak eskola horretako irakaslegoari inplikazio bat esijitzen dio: dedikazioa, lana, ordaina. Alderdi hau zihurtatzen ez den bitartean, edozein esperientziã elbarri jaioko da.

Laburtuz: maisu-karreraren "maria-tasun" ari dagokionez, ez dut uste inoiz oso zaila izango denik, eduki kontzeptualak beste karreratan baino garrantzi erlatibo tipiagoa dutelako. Baina horrek ez du nahi esan serioa, oso serioa, ez denik: seriotasuna, ordea, akademikoak soilki ez diren hainbat esijentziek emango diote.

ISILIK: Nabari daitekeen beste arazo bat, ikaslegoaren espezializazioa litzateke. Adar ezberdinak daude, baina ez dira beti errespetatzen, askotan ikasleak ezin ditu praktikak berak nahiko zukeen tokian egin eta hiru urteak bukatu ondoren ahal duen lanpostua hartzen du. Nola beharko lukete adar hauek, ze berezitasun lituzkete eta nola antolatuko liriateke karreran zehar?

Jesus: Bai, beste arazo aipagarria ADARRENA litzateke. Badirudi "Ley general de Educación" delakoaren ondoren maisuek, bakoitzak bere sailean, espezialistak izan behar dutela: hor ibiliko da, adibidez, euskal filologiakoa jo ta ke bereak diren gai propioak prestatzen. Hemendik irtetzean, ordea, Hizkuntz irakaskintzan trebetua egon behar duen ikasle hori, gehienetan, Eskolaurrean ipiniko dute, edo Matematika erakusten...: zeraman prestakuntzak ez dio lagunduko bere lanean eta, alderantziz, hainbat arlotan hutsune nabarmenak somatuko ditu. Eta egoera hau nahiko hedatuta dago: ikastolen joera, maisu berri bat aukeratzerakoan, *nor den* begiratzean gehiago datza, zer prestakuntza berezi dakarren begiratzean baino. Horregatik ezagupen psikologiko, pedagogiko eta didaktikoetan ardatzen den oinarrizko formakuntza indartzeko joera agertzen ari da ikastetxe honetan. Badira, gainera, pedagogia mailan ere, beste arrazoi batzuk maisuen formakuntza orokorrago baten alde azaltzen direnak, eta, itxuraz, hortik abiatuko da aurki etor daitekeen programazio berria. Hala zer dion honetaz lehen aipatu "La Reforma de la formación de profesores" liburua:



"Se reconoce el valor de las especialidades para la segunda etapa de la EGB en un área cultural determinada. Pero debe recordarse que la Ley habla de "moderada diversificación" en esta segunda etapa. Por lo mismo, esta especialización es entendida como una ampliación de conocimientos culturales y su tratamiento didáctico en un área determinada, para referir las exigencias de la misma en la referida segunda etapa" (35. orr.) eta beste nonbait espezializazioek dakarten arriskuaz mintzatzen da: "Esta tendencia puede llevar a minusvalorar determinadas materias instrumentales necesarias al Profesor de EGB como el dibujo, la música, las manualidades y el ejercicio físico" (34. orr.).

ISILIK: Nola ematen da ikaslegoaren partehartzea eskolako jestionan, ze aukera dute, ze motatako partehartzea nahi edo eskatzen dute?

Jesus: Ikasleen partizipazioari gagozkiolarik zera esango nuke, alegia, printzipioz dena argi dagoela: ikasleek ikastetxearen bizitzan esku hartu behar dutela, denok nahi dugula hori, ikastetxeko erakunde guztietan (Batzarre orokorrean, Batzorde Zuzentzailean...) direla ikasleak partaide, eta abar. Errealitatea, ordea, ilunagoa da: ikaslegoak uko egiten die bide hauei. Ez dituztelako eraginkorrak ikusten beren interesen alde borrokatzeko eta, baita ere, inork ez duelako inoren ordezkariarik bereganatzeko gogorik agertzen. Direla urte batzuk "asanbladak" izan zuen protagonismoa ere lur jota dagoela esan daiteke. Eten bat ematen da, beraz, Eskolako erakunde eta ikaslegoaren artean.

Zorionez, ikastetxea tipia izanik, ikasle-irakasle artean sor zitekeen antagonismo txotxoloa eguneroko harreman akademiko eta pertsonalaren bidez arras leunduta geratzen da. Paraleloki, ekintza ezberdinen bidez, beste partaidetasun-moeta batzuk bultzatzen ere saiatzen gara, emaitza ezberdinak jasotzen direlarik.

Azkenik esan beharko nuke ezin dugula inolako triumfalismorik azaldu. Badakigu atzoko maisua nolakoa zen, baina biharkoaren tankerak zertxobait ihes egiten digu. Informatika, Ikus-entzun-gailuen mundua, sozializazioa, globalizazioa... dira, beste batzuren artean, bihar ko maisuen jokabidea bideratuko duten giltzarriak. Beraiek dakarkiguten berrizkuntza hori guztiz heltzeak izugarritzko ahalegin kolektiboa eskatuko luke, gizarte osoa bait dago inplikaturik —eta ez moralki bakarrik— haurren hezkuntzan. Maisu eskolak bere aldetik, bide berri horiek antzeman eta urratu eta, arlo mugatu batzutan, lana egiten saia daitezke; baina, zoritxarrez, beraien ahalbideak nahiko urriak dira.

Bi hitzetan esan da: oinarrizko prestakuntza eman dakioke 2000. urtean bere heldutasunera iritsiko den gaurko ikasleari, baina gure munduak sortu eta gela barnean gutxiegi landuak izaten diren aurrerapen tekniko, sozial eta pedagogikoei ez badio jarraitzen laister erabat baztertuta gelditu daiteke.

Jesus Garmendia

Eskoriatzako Irakaslego
Eskolako Zuzendaria

MAGISTERIO/AUKERA BAT

Orain irakurriko duzuen lan hau, titulo gabeko irakasleentzat Bergaran funtzionatzen duen Magisterioak dituen baldintza bereziei erantzuteko asmoz egina dago.

Ez dugu uste, eta ez dugu honela planteiatu nahi, Magisterio eskoletara jeneralizatu daitekeen eredu orokorra denik.

Oso baliagarriak diran elementuak dituen errealitate batetatik abiatu nahi du, bereziki, ikaslegoa urtetan hurrekin lanean ari dela kontutan izanik.

Hemen azalduko dugun lan hau luzeagoa eta zabalagoa da, berau egiteko magisterio tituluak ez duten maisu-andereño talde bat eta beren irakasleak bildu ziren. Helburu nagusia, zalantza orokor bat sortzea litzateke eta hortan oinarriturik bideak urratzen hastea.

Orain doana lehenengo eta bigarren zatiak besterik ez dira, bestea ez dugu hemen jarri, gure helburutik piskat alde batera gelditzen delako eta praktika konkretu bat aurkezten duelako.



- *Eskaini nizun, arrastaka, zure aurrera ekarri eta ironiaren baietzaz ukatu zenidan.*

Sarrera

Lan honek magisterioko kurtso ezberdinetako ikasleekin izandako eztabaidak jaso nahi ditu.

Zaila zaigu eztabaida horietan azaldutako guztia hemen jartzea; dena den, zailtasun hori optimismoz har dezakegu, zailtasun honen zati haundi bat eztabaidaren nortasunari dagokiolako: bitalista, aurkitu nahian, autokritikoa, partehartzaile, zalantzatsu, nora eramango gaituzten ez dakigula bideak markatzen dituen eztabaida.

Lana hiru zatitan banatzen da:

- Lehenbizikoan F. Tonucciren lan baten laburpena jasotzen da (eskola ikertoki bezela / eskolaren berrikuntza beldurra), eztabaida haietan erreflesio papera jokatu zuen elementu bezela.
- Bigarren zatian Tonucciren testua oinarritzat harturik, "guretzat" (magisterioko ikasle eta irakasle bezela) egindako testura aldatu nahi dugu. Planteamentu berri hortan lortu nahi dugunari "helburu nagusiak" deituko genioke.
- "Metodologia konkretu bat lantzeko oinarriak" ematen ditu hirugarren zatiak, "elementu" eta "helburu nagusien" arteko koerentzia lortu nahian.

Lehen zatiaren beharrezko sarrera

Lan honetan Tonucciren (beste edonor izan zitekeen) testuak jartzeak bi paper jokatzeko ditu:

Alde batetik, haurraz erreflesionatzen duten testuak dira, bere ezagutzeko ahalmenak.

Baina ez da hori hemen interesatzen zaigun papera. Eztabaidetan ikusi duguna ez da haurra izan, gure burua baizik, nagusi bezela, haur horren irakasle bezela.

Pentsatu dugu, eskolaren arazoa, eskolaren aldaketa arazoa, ez dela bereziki aldaketa tekniko edo didaktikoa; ezta ere, oinarrian behintzat, "apuntatzea" eta merkaturian hain ugari dauden aldaketarako pedagogi teknika bat besapean hartzea. Aldaketaren oinarria gudan dago.


Bilatu nahiaren pozoina, erreflesioarena, besteekin egindako erreflesioarena, eraikitzen harriskatzea eta bizitzaren koerentzia defenditzea gudan ez badago; teknikak, korrante pedagogikoen ezagutzea, kasu onean ere "muletak" izango dira; eta txarrean, ez gauden tokian gaudela pentsa araziko digun gure buruari esandako gezurra.

Horregatik gure helburu nagusia ez da haurra, haurrak itxaron dezake. Haurrak itxaron egin behar du, denbora behar baitugu gure ahalmenaz jabetzeko, gure nahia definitzeko.

Hori izango da Tonucciren testuek beteko duten bigarren papera. Irakur ezazuen gonbidatzea izango da, ez hainbeste literalki, bigarren zentzubatetan baizik, lerro artean irakurriz, testua norberaren arabera interpretatuz, ez haurraren arabera.

Azpitarratuak apropos jarrita daude, nagusiak, nagusiarentzat den zerbait irakurtzearakoan errezago izan dezan. Horrela, Tonuccik esaten digunean: "Haurrak, aldiz, ukapen bideak hartuko ditu, norbaitek "erakuts" zai egongo da"... , hau ere irakur dezakegu: "Ezingo dugu aldaketa bidean lan egin, gudan ukatze aktitudea ematen bada, norbaitek "erakutsiko" digularen zai bagaude.

Eztabaida, behin baino gehiagotan, haurra eta nagusiaren artean egindako gonbaraketa edo paralelismoaz baldintzatua egon da. Momentu batzuetan gainera, paralelismo hau iraingarria izanda batzuentzat. Baina egoera jerarkiko batek, rolen zatiketa (dakiena - ikasten duena) garbi mugatua ematen denean, behean dagoena umetu egiten da eta goian dagoena paternalizatu, beraz paralelismo hau ez izatea hain desorekatua.





Bestalde, eskola baino lehenago ematen den kapazitate bat onartu diogu haurrari, ingurunea ezagutzeko kapazitatea, ikerketa autonomoaren bidez, askotan nahiz eta nagusiak mugatu. Onartu dugu ere, ikertze ahalmen autonomo hori eskolan mozten dela. Nahia, galderak egiteko beharra, etab. OHO aurrera doan neurrian urrituz doaz haurraren.

Gu, gaur egun, OHOk haur horrengandik hurbilago gaude, 1, 2, 3 urteko ikertzaile amorratu horrengandik baino. Baliteke (eta hori litzateke retoa) arazoa izatea, momentu batetan geratu eta gure autonomia eta ikeretzeko kapazitatea desegin zuen eskolar istorio bat berriz ikustea, gure autonomia, norberaren buruan konfiantza eta ahalmen sortzailea irentsi zuen sistema.

Tonucci... (bi zentzukin irakurtzeko)

"Bere jaiotzatik, haurrak bere ingurunea ezagutzen du; ingurune guztia eta modu egokian, hau da, bere beharren arabera".

"Hasieran bere burua ezagutuko du, bere eskuak, oinak, gero sehaskan dagoena, makurtzen zaizkion aurpegiak, gehien, eta bere beharren erantzunei lotuen daudenak... (...) zabaltzen doan giroa, haurraren ezagutze ahalmena haunditzen doan neurrian deskubritzen duena (...)... Baina gehien interesatzen zaiguna zera da, ohartzea haurrak momentu bakoitzean, **iker-tzaile baten gisa "ezagutzen" duela.**

"Sehaskan objektu bat jartzen badugu, lehendabizi "jakinmina" adieraziko du, ikerketa eman dedin lehendabiziko baldintza. Gero beregana hurbilduko du eta bere ikertresnen bidez "aztertu", ahoan sartuko du, mihiztu egingo du... eta objektu horretaz, **gero baiez-tatuko dituen hipotesi batzuk osatzen ditu (...).**

"Ikertzaileak egingo zukeen bezela, berdin berdinean. Era hortara, haurra konturatuko da, bere oinak ez direla objektuak, bere gorputzaren zatiak baizik; konturatuko da aurpegi hau ona dela, agurtu, maitatu, janaria eman, garbitu eta berarekin hitz egiten duelako; horrela ezagutuko du bere sehaskako mikrokosmosa, bere gelaren espazioa, etxea..."

"Ezagutzeko kapazitate honek, hau da, ezagutzen ditugun gauzek azaltzen dizkiguten arazoei erantzuteko kapazitatea, bere buruarengan konfidantza ematen dio haurrari. Irakasle eta gurasoek ez diote garrantzi handia ematen faktore honi, baina uste dut heziketa prozesu osoa baldintzatzen duela. **Haurra ezagutze prozesuan sartuko da ezagutzen dakiela ohartzen bada.** Bestela jarrera pasiboa izango du, ukatze jarrera, eta zerbaitek edo norbaitek esan badio berak ez dakiela ezagutzen, norbaitek erakutsi dezaion zai egonga da."

"(...) Bere bizitzaren lehendabiziko egunean hasitako etengabeko ikertze honek, inguratzen duena giroarekin harreman aktibo batetan jartzen du haurra, **berea den kultura eraikitze eta azaltzeko aukera emanez.** Aberastasun honen jabe delarik haurra eskolara joaten da."

"Eskola oso baliagarria izan zitekeen hazkunde bide honetan. Berak osatutako kultura besteen zerbitzuan jartzen duen une zoragarria izan zitekeen. Momentu delikatua da, zuzenketa, estimuluak, laguntza behar duen momentua, bakoitzaren baloreak azal daitezten."

"Haur askoren elkartzeak, inoiz moztu ez den ikertzeari bultzada handia emango lioke. **Haur bakoitza eredu berriekin aurrez aurre jarriko litzateke,** hizkera ezberdina duten haurrekin hitzegin beharko luke, bere burua kuestionatu."

"Eskolak guzti hau ukatu egiten du. Gutariko inork ez du antzerako ezer ezagutu (horrelako eskola moetarik), eta gure seme-alabak ez dira hori bizitzen ari, ezta gutxiagorik ere.

Eskolak haurraren ikerketa autonomoa moztu egiten du

"(...) Hasteko, haurra, zein ordurarte jolas egin eta bere mundua jolasaren bidez ezagutzen baizuen, ohartzen da jolasa ez dela beti posible, lana ere egin behar dela. Pentsa dezakegu zein izan daitekeen haur horren harridura eta umildura, beretzat jolasa orain arte egon den gauza serio bakarra izan denean, **(jatea eta lo egitea utzi zitezkeen jolas egite arren).** Orain lana ere egin behar da eta haurra gauza batzuk ulertzen hasten da:

— Ez dela egia berak hainbeste gauza dakienik, eta dakienak ez duela ezertarako balio atsegina delako.

— Lan egitea beharrezkoa dela, nahiz eta nekagarria eta azpergarria izan, eta jolasa alferrikakoa eta zentzu gabekoa dela, lanen artean atseden une bat hartzeko besterik balio ez duena.

Hiru urtekin, lanaren alienazioa eta gizon-emakume alienatuen denbora librearen alfertasuna finkatzen dira.

"(...) Eskolak, modu organiko batetan egiten duen bigarren indarkeria, lehenengoaren ondorio bezela, hizkuntzen sailkapena izango da. Modu organiko batetan esaten dut indarkeri hauek ez direlako eskolarenak bereziki, gizartearenak baizik, eta haurrak beti danik. Hori jasan behar du familiarik hasita; baina eskolan, benetako hezkuntza egitura honetan, espezialistek zuzendutako hezkuntzan, indarkeri hau metodo bihurtzen da."

"Haurrak erabiltzen duen hizkuntza (hizkera) multzotik, eskolak hautaketa bat egiten du, gehiengo bat baztertuz eta gutxi batzuk onartuz. Adibidez irakurketa eta idazketa."

"Berez, benetako espresio aktibitateak, margotzea edo klarionez egindako marrazkia, oso gutxi lantzen dira eskolaurtean, gero ez baitira "gaiak" izango OHOrak pasatzerakoan. Dramatizazioak, istorioen asmaketak, txotxongiloak, erritmoak, ekintza praktikoeak, etab., berdin bukatzen dute: **Eskolak (erdi ziklo, goi ziklo, etab.) ez baitu hitzegiten, asmatzen, egiten, lanegiten irakasten.**"

"(...) Guk hemen, haurraren sormen ahalmenak errespetatuz, bere askapena indartu eta animalia gisara heziko ez duen alternatiba proposatu nahi dugu."

"Metodologi alternatiba hau, ikertzea da"

Ikertzerakoan, ikertzen duten taldean, ez dago tokirik jakin eta irakasten duten batzuentzat eta ez dakiten eta ikasten duten beste batzuentzat.

Ikerketa, bere erantzuna beharrezkoa zaigun arazo baten aurrean ematen da eta ikerketa metodoak aurreko ezaguerak modu berri batetan erabiliz arazoa konpontzera behartuko gaitu.

"Hau litzateke alderdi interesgarriena (...), ezagupenak emankor bihurtu daitezela, ez memoria joku antzu batzuk egiteko, baizik eta **benetako problemei, egunerokoei erantzuteko.** Hau noski, proposamen optimista da, haurraren dugun konfidantzan oinarritutakoa, bere kultura eta ezagupenaren jabe egitera pasako den haurraren. Baina ez da modu sinplista eta alfer batetan pasako, bere buruan kultura bat eramango balu bezela baizik, berezko bilakaera edukitako kultura; hau lan giro apropos bat ematen denean lortuko da, lana eta jolasa orekatzen dituen giroan, **irakasle konziente baten laguntzaz lortuko da, "irakutsi orde, lan eragile, orientatzaile, etab. izango den hezitzailea.** Eta irakasleak lan hori tranparik gabe bete dezate, ezer ulertzen ez duenaren itxurarik egin gabe, ikerketa lana egokia eta garbia baldin bada.

"(...) Benetazkoa izan dedin, ikerketa lanak baldintza batzuk bete behar ditu."

"Hurbilean, ingurunean dagoena hartuz ikertu daiteke. Haurrak lehenengo bere eskua ezagutzen du, gero bere tresna hori makila hartzeko erabiltzen du, eta makilaren ezaugarriak ikasi ondoren, pelota hartzeko erabiliko du."

Haurrak, hurbilarekin jokatzeko du, bere ondoan dagoenarekin, eta bere jakinduria haunditzen doan araberan, hurbil honen mugak zabalduz joango dira eta bere begi eta eskuen ahalmena haunditu egingo da.

(...) Benetazko ezagupen bakoitza arazo bihurtzen da eta hurbileko giroa, urutiago dauden beste giro batzuekin kontaktoan jartzen da, gero eta bide ezberdinagoak jarraituz, ikuspuntuen araberan.

"(...) Ikertze lanaren bigarren ezaugarria, daraman arriskua litzateke."

Haurra, ikerlari den neska-mutila, ikutu daitezken arazo eta pertsonekin harremanetan dauden benetazko problemak aztertzen ditu, eta ekintza modu konkretu batzuetara heltzen da. **Benetazko kulturak jendea mugitzen du.**


(...) Irakasleak arrisku honetaz ohartua egon gehar du. Puntu horretara heldu ondoren, haurra gelditzea edo errenunziatu araztea, ikerketa hasten ez uztea baino grabeagoa litzateke. Kasu honetan hobe litzateke behar den bezala errenunziatzea.

"Hirugarren ezaugarria. Ikertze lana talde lana da bereziki (...) zentzu gabekoa litzateke problema nagusiak (benetazkoak diran problemak, nagusiak dira), datu biltzea, egokitzea, konprobatzea, etab. eskatzen dutenek, bakarka aztertzea. Horrek esan nahi du, gela berrantolatu beharko dela talde lana egiteko, irakasle mahaia-pupitreak osatzen duten egitura puzkatuz, taldeka jarritz..."

Testu liburuak, esan den bezala, desagertuko dira, bakarkako lana egin eta eduki batzuk errepikatze besterik balio ez dutelako. Azkenik, eta hau litzateke inportanteena, irakasleak talde lana egiten jakin behar du. Gaur egun, irakasle gehienek lan taldeak osatu eta bultzatzen dituzte, baina oso gutxi, bai heziketaz, bai eguneroko praktika dela eta, ez dakite beste irakasleekin taldean lan egiten. Bestalde, ezinezkoa da, bere eritziak bere parekoekin arriskatzen ez dakien batek, lan talde batetan integratzen jakitea (haurrekin hain zuzen).



HENRY WALLONengana GERTURATUZ



Artikulu honen asmoa ez da Wallonek pedagogiari eta sikologiari egindako aportazio trinko eta berezietan sakontzea, berritzaile haundi honen nortasunera eta pentsakerara hurbiltzea baizik.

Arrazoi politikoak medio, Wallon egile ezezaguna izan da guretzat. Ez da harriztekoa, zientifikoki eta politikoki konprometitua egon den ikertzaile marxista, biologia eta sozial ingurunearen artean dauden harremanetan oinarriturik giza portaera azaltzen duen egilea, horrela debekatua izatea hemen.

1. Biografi apunteak

Bere aktibitate ezberdinak: ikertzaile, politiko eta pedagogikoak bat eginez bizi izan zituen Wallonek, honek gure mendeko bizitza aberasgarri eta intentsoenatariko bat osatzen du.

— 1879. urtea: Parisen jaio zen. Bere familian, ekonomikoki eta kulturalki maila haundikoa, hezketa liberala jasotzen du, errepublikanismo marko ideologiko baten baitan. Haurtzarotik, politika giroa sakonki biziko du bere famili barruan. Bai aitak, bai aitona, kargu politiko inportanteak izan zituzten. Famili giro honek sakonki baldintzatuko du bere bizitzan zehar.

— 1885. urtea: Sikologiaz duen interesak filosofiaruntz bultzatuko du (sikologia ez zegoen oraindik zientzia independente bezala onartua), "Escuela Normal Superior" deritzan eskolan egingo ditu bere ikasketak.

Filosofia ikasketek ez dute, gizonaren ezagutzeaz duen kezka asetzen, Ribot-en eraginez, Medizinan matrikulatzen da.

— 1908. urtea: Medizina ikasketak bukatu eta Nageotte irakaslearen (neurologoa) laguntzaile bezala haurtzaroaren ikertze lana hasten du. Garai hontan, haurraren sikomotor transtornoari buruz datu eta ohar asko jaso zuen.


— 1914. urtea: Wallon beti sozialista bezala definitu izan zen, baina urte honetan ez dago Frantziako Alderdi Sozialistaren politikarekin ados eta utzi egiten du partidua, Komunista Alderdiaren sinpatizante bihurtuz.

— 1914-18. urteak: 1. Gerra Mundialean sendagile bezala parte hartzen du, gerrak dakartzan sikiko aldaketez interesatuz.

— 1919. urtea: Gerra bukatzen denean, Sorbonako Letra Fakultatean Kurtsoko arduradun bezala hartzen dute.

— 1922. urtea: Haurraren sikobiologia laborategia eraikitzen du. Hau 1927. urtean École Pratique des Hautes Études (41, rue Gay-Lussac, Paris) eskolan integratzen da eta gaur egun bere ikertze aktibitatea aurrera darama.

— 1925. urtea: Bere tesia argitaratzen du "Studes et Troubles du developpement psychomoteur et mental chez l'enfant" eta "l'enfant turbulent", bertan sikiko bilakaeraren jatorriak deskribatzen ditu, motrizitatearen organiko eta sikiko funtzio bikoitza oinarritzat hartuz.



"Garai hortan, normala zenaren aurka, Wallonek, buruko gaitzen eta trastorno organikoen artean mekaniko soila ez den harremana dagoela deskubritzen du; haur atzeratuen erreakzioetan ere inguruneak duen garrantzi eta eraginaz konturatzaren da. Egiaztapen hau, gero burutuko duen obra osoan agertuko den konbikzio sakona bihurtuko da." (Jesus Palacios: *Psicología del niño de Henri Wallon*).

— 1930. urtea: Bere ikertze lana, argitaratzen dituen artikulu eta publikazio ugarien bidez ezagutzen hasten da: Sikologia aplikatuaren oinarriak (1930), haurraren izaeraren jatorriak (1934), haurraren psikologi bilakaera (1941), pentsamentuaren ekintzaz (1942), pentsamentuaren jatorriak haurraren (1945), etab.

— 1931. urtea: "Círculo de la Rusia Nueva" deritzan mugimenduan sartzen da, URSSen egon ondoren, marxismoaren pentsamentuaz azterketa sakona egiten dute, tartean Pulitzer eta beste batzuk zeudelarik. Frantziako ezkerren alde posizionatzen da, European faxismoak duen indartze etengabearen aurka.

— 1936-39. urteak: Espainiko gerran Errepublikano ejerzitoaren alde borrokatzen da, bai irratiz, baita ere Madrilan eta Barcelonan, tartean ez ditu bere irakasle eta iker-tzaile aktibitateak uzten.

— 1942. urtea: Gobernuak, bere aktibitatean jarraitzen ez dio uzten, Gestapok, Pulitzer, Solomon eta Decour bere lagunak hil ondoren bere atzetik dabil. Erresistentzian sartzen da eta Alderdi Komunistaren sinpatizante izatetik militante oso aktibo bihurtzen da, bere zientifiko lana etengabe jarraitzen duen bitartean.

— 1944. urtea: Gobernu Probisionalak Hezkuntza Ministrari izendatzen du, baina kargu honetan oso epe motz batetan egongo da.

— 1946. urtea: Languerin eta Pierron-ekin batera Hezkuntzaren Berrikuntzarako Komizioaren presidentea da.

— 1948. urtea: Enfance aldizkaria fundatu eta zuzentzen du. Aldizkari hau gaur egun bi hilabete behin argitaratzen da oraindik, Sikologia, Pedagogia, Soziologia eta Neurosikiatría tratatzen ditu.

— 1949. urtea: 70 urte betetzen ditu eta jubilatuta egiten da.

— 1953. urtea: Istripu baten ondoren hil arte elbarri gelditzen da.

1962. urtea: Parisen hiltzen da, Abenduaren 1ean, memoriari buruz egiten ari zen artikuluan lanean ari zela.

Henri Wallonen sikologiari buruzko erreflesioak

"... Wallonengan ez dago doktriña bat, ez dago beti gehiago edo gutxiago den sistema, egilearentzat ohore itxaropena eta irakurlearentzat seguritatea ematen duen sistema -Wallon gauzak hartzeko modua da, jarrera bat, metodo bat." (R. Razzo. *Psicología y marxismo*, 89 o. a.).


Egile askok aztertu du haurtzaroa, emaitza jenialak utziz, Wallonek gauza zoragarri bat uzten digu, gurea den ikertze lan bat egiteko aukera. **Pentsatu arazi egiten digu.**

Bere obrara, edozein artikulutara, edozein kapitulutara hurbiltzen den irakurlea, ez da ikusle hutsa izango, inplikatzaren joango da, erreflesionatzera behartuta sentituko da. Maila honetan, ez genduke esango Wallon zaila denik, baina ez eta arosoa ere, errezeta, ortodoxia eta erantzun definitiboaren bila datozenentzat.

Wallonek, Piagetek bezala, giza-haurra aztertzen du, bere ekintzak, bere bilakaera, genetiko ikuspegi batetatik.

Gizakia, beste animalia batzuk ez bezala, bukatu gabe jaiotzen da, ez da osatuta dagoen izakia, jaiotzatik baldintzatua, egin eta aldatu egiten dena bere bilakaeran zehar, baizik.

Hala ere, Wallonen genetika ikuspegi integratzailea da, ez du faktore isolatu bat soilik aztertzen: adimena (Piaget), afektibotasuna (Freud)... **aktibitate guztiak, elkarrekin eratzen duten osotasuna baizik.** Ez independenteki edo isolatuak, elkar osatuz baizik: mugimenduak, afektibitateak, adimenak, sozializazioak, hizkuntzak, multzo bat osatzen dute, sistema horren baitan bakoitzak bere zentzua hartzen duelarik, ingurunearekin eten gabeko elkarrekintza mantenduz.



Wallonnentzat gizona izaki organikoa, sikikoa eta soziala da, organiko posibilitateak eta sozial eragina elkarloturik, bien artean elkar aldatze harremana, kultura eta pertsonaren arteko kontraesanak; harreman hau bilakaeraren motorea bihurtzen delarik. Ez du faktore konkretu bat hartzen, ez du alderdi isolatu bat aztertzen, gizakia eta bere ingurua kontraesanean jarriz, horren osotasuna ikertzen du.

Horrela, sikologiaren helburua, elkarren arteko eraginaren azterketa eta ingurune eta Biologiaren arteko dialektika, izango da.

Ingurunearen zeregina

Haurraren arrealitatea ulertzeko, eta edozein gizakirena, bizi den ingurune materiala, kulturala, humanoa eta soziala ezagutzea behar beharrezkoa zaigu.

Nortasuna, bilakaera, ez dago jaiotzerakoan dugun osatze biologikoaz soilik eraginda. Noski, Wallonek ez du inoiz biologiaren eragina ukatuko; alderantziz, egitura organikoak bilakaeraren oinarriak izango dira, abiapuntua. Posibilitate hauek, giza ingurunearekin harremanetan jartzekoan, sikiko agerpenak eman go dituzte, eta hauek giroaren ezaugarriak medio, aldatzen joango dira. Aldi berean, giroaren baldintza hauek, pertsonaren agerpen sikikoak aldatzen joango dira.

"... Sikismoa ere, ezin dugu baldintzatzen duten erreakzio fisiologikoetara mugatu... sikismoaren bilakaera, ezin da aztertu, bere ezaugarri bakoitzari erantzungo dion giro osagarri eta konkretu honen barruan baizik. Portaera bakoitzaren aurrean, zer oinarriko baldintzek eragiten duten eta berak zer erlazio posible egiten dituen galdetzea litzateke arazo baliagarri bakarra..., erlazio hauen eragina pertsonarengan eta giroan." (H. Wallon, pentsamenduaren jatorriak, 525, 526 o. a.).

Sikismoaren kontzetu hau xehetuz, Wallonek inguruneari "beharrezko" ezaugarria ematen dio. "Gizonarentzat, gizartea behar bat da. Organiko errealitatea". (H. Wallon, haurraren izaeraren jatorriak, 10 o. a.).

Giza izakia gizartetik kanpo hartzea, gizatiar bezala definitzen duena kentzea suposatuko luke.

"... Gizona gizartetik ateratzea, pertsona gizartearen aurka jartzea, askotan egin ohi den bezala, burmuin azala kentzea litzateke". (H. Wallon, haurraren izaeraren jatorriak, 10 o. a.).

Noski, burmuineko bilakaerak (beste animaliangandik ezberdin egiten gaituenak) hizkuntza behar du, eta hau gizarteak ematen digu (haurra berezko bilakaera batetan, zizikadurara besterik ez litzateke helduko).

Jaio berria den haurra, biologikoki inkapaza denez, gizartera bultzatuta aurkitzen da, gizartea behar du, dependentzia oso duen talde horerantz bideratzera behartuta dago. Une honetatik aurrera, ingurunearen eragina oso intentsoa izango da, eta neurri batetan, bere bilakaera eta nortasuna modu batera edo bestera determinatuko du.

Organiko eta sikiko bilakaeran hain garrantzitsua den **mugimendua**, inguruneak eskaintzen dituen tresna eta estimuluek determinatuko dute.

Gizarteak emandako **hizkuntza**, bere pentsakeraren moldea izango da.

Familia, eskola, lan inguruan ematen diren portaera markoak, aukerak, afektibo korronteak, debekuak... sakonki markatuko dute bere nortasuna.

Haurrak, pertsonak, gizartearengandik horrelako eragin sakona jasotzen badu ere, berak aldi berean, bere mugimendu, pentsakera, afektibitatea... medio direlarik, bere ingurunea ere aldatzen du.

Dialektiko ikuspegi honetatik, giza izakiaren eta ingurunearen arteko harremanak dinamikoak eta aldakorak direla jakinda, ezin dugu Wallonengandik, sikologi edo pedagogi estatiko eta generalizatu bat espero.

Bukatzeke, Wallonek, haurraren, pertsonarengan ez daudela alderdi isolatu batzuk azpimarratu nahi du; afektibitatea, adimena, mugimendua, nortasuna... elkarloturik daudela, eta beraien artean eragin sakona dutela. Hauek, aldi berean, ingurune batetan ematen dira eta ingurune horrek, pertsonak ingurunea bezala, aldatu egiten ditu, etengabeko mugimendu dinamiko batetan mulgilduta daudelarik.

MARIJOSE ORTIZ
Maiatzak 16



Bibliografía

Wallon, H.

"La evolución psicológica del niño". Ed. Crítica. Barcelona, 1980.

Obra honetan Wallonek, haurren ikasketa metodoa azaltzen digu lehenbizi; bigarren atal batetan, haurren aktibitateak: ekintza eta ondorioa, jostatzea... Azkenik, bilakaeraren zehar ematen diren funtzional arloetan sakontzen du: afektibitatea, motor ekintza, ezaguera, pertsona.

"Los orígenes del carácter en el niño". Ed. Nueva Visión. Buenos Aires, 1979.

Wallon-en pentsakera garbien azaltzen duenatariko bat dugu hau. Lehenengo atalak emozioen teoria lantzen du: jatorria, natura edo izatea, kontraesanak. Bigarrena norberaren gorputzarekiko kontzientziaz, eta hirugarrena, norberaren buruarekiko kontzientziaz.

"Del acto al pensamiento". Ed. Psique. Buenos Aires, 1978.

Liburu honetan, motrizitate abiatuz, pentsamentuaren sorrera adierazten digu. Ilakaeran, imitatze, plantak egite eta hitzak duten papera aztertzen du. Azkenik, haur pentsamentuaren haserak dituen berezko kontraesan eta arazo bereziak azaltzen dituelarik.

"Los orígenes del pensamiento en el niño". Ed. Nueva Visión. Buenos Aires, 1976.

Bi tomotan datorren obra honetan, sakonki aztertzen du Wallon-ek, sei urteetatik bederatzi urte bitarteko haurren intelektual bilakaera. Bere eragozpen eta zailtasunak dituen pentsamendu sinkretikotik, pentsamendu kategorial eta objetiboraino. Bi tomotan azaltzen diren hurrei buruzko obserbazio ugariak, irakurketa argituz asko laguntzen dute.

Pablo del Río argitaletxeak argitara eman duen (1980) Jesus Palacios-ek hautatu, antolatu eta sistematizatu dituen Henri Wallon-en artikulu garrantzitsuenen bilduma. Lan honek, era serio eta samur batetan, Wallon-en obra eskaintzen digu hiru tomotan. Lehenbiziko biak: "Psikología del niño" (I-II) autorearen psikologi pentsamenduaz egina. Hirugarrenak, berriz, "Psikología y Educación", hezketaaren problematika eta psikologia eta hezketaaren arteko harremanak lantzen ditu.

Wallon-i buruzko lanak

— ZAZZO, R. "Psicología y marxismo" (H. Wallon-en bizitza eta obra). Ed. Pablo del Río. Madrid, 1976.

— CLANET, C. eta beste batzuk. "Dosier Wallon-Piaget". Ed. Gedisa. Barcelona, 1981.

— RÉVUE ENFANCE. "Introducción a Wallon". Ed. Médica y Técnica. Barcelona, 1981.

— LABORATOIRE DE PSYCHO-PEDAGOGIE. UNIVERSIDAD DE CAEN. "Introducción a Wallon". (Wallon eta psikomotrizitatea). Ed. Médica y Técnica. Barcelona, 1981.

— GRATIOT-ALPHANDERY, H. "Las grandes psicologías modernas". Ed. Herder. Barcelona, 1979.

— TRAN-THONG. "Los estadios del niño en psicología evolutiva". Ed. Pablo del Río. Madrid, 1981.

— — —. "Qué ha dicho verdaderamente Wallon? Ed. Doncel. Madrid, 1971.

— NADEL, J. y BEST, F. "La pedagogía de Henri Wallon hoy". Ed. Reforma de la Escuela. Barcelona, 1982.

Artikuluak

— LOPEZ, F. "Henri Wallon". Infancia y aprendizaje aldizkarian. 1978. 3. alean, 73-78 orrialde bitartean.

— SIGUAN, M. "La actualidad de Wallon". Infancia y aprendizaje aldizkarian. 1979. 8. alean, 85-92 orrialde bitartean.

— GRATIOT-ALPHANDERY, H. "Henri Wallon y la psicología escolar". Infancia y Aprendizaje aldizkarian. 1978. 3. alean 85-93 orrialde bitartean.

— PALACIOS, J. "¿Quién es Henri Wallon?". Cuadernos de Pedagogía aldizkarian. 1978. 42. alean, 38. orrialdean. - "H. Wallon y la educación infantil". Infancia y Aprendizaje aldizkarian. 1979. 7. alean, 29-42 orrialde bitartean. - "Psicología, pedagogía y sociedad", Cuadernos de Pedagogía aldizkarian. 1980. 63. alean, 14-17 orrialde bitartean. - "H. Wallon. Datos sobre su vida y su obra". Cuadernos de pedagogía aldizkarian. 1980. 63. alean, 6-8 orrialde bitartean.



"MEMO"ri GUTUNAK

Colombiatik, Garcia Marquezen lurra, Macondoena, ia majikoak diren errealitateena, hilabeterako joan eta bederatzi hilabetetan besarkatu ninduen, birrikak, adimena, sormena eta bizitzaren aurrean garbitu eta haize freskoz betetzen duen Hego Amerikako lurretik itzuli nintzenez, nire hango heziketa esperientziaren laburpen bat ekarri nuen.

Laburpen hau, Hego Ameriketara lanean ari diren guraso, irakasle eta profesioanalentzat pentsatuta dago.

Nire ahalegina bi mundu elkartzeari litzateke: intelektual profesionalarena eta ia ezer ez duen nekazariarena.

Gutun batzuen intimitatea hartu nuen metodo bezela, horrela, zerbait adieraztea errazagoa baita, teoria, sozial konpromisoa eta bizitza moztaren zama gainean izan gabe.

Memo, gutun hauen hartzailea, benetako eta fikziozko norbait litzateke aldi berean. Benetako nire lagun konkretu bat delako, eta fikziozkoa nire lagun horrek nire esperientzia ezagutuko luketeen pertsona guztien papera jokatuko duelako. Nire esperientzia bital hau, mundu sofistikatu eta "zibilizatu" batetatik, administrazioak eta burokraziak irudimena itotzen duen mundu batetatik, beste mundu ezberdin batetara, non hemen bezela toki "zibilizatu" batzuen ondoan (Bogota, Bucaramanga...) toki ahaztuak, ohika eta karrasika, aldaketa aukerak eskaintzen baitauden toki ezberdinetara.

Itzuli nintzenez, lagun batzuk animatu ninduten zuekin esperientzia hau bat egitera, eta hemen dago.

Lana, zazpi gutun eta hamaika oihu poesia gisan idatziak osatzen dute.

Lanak batasun bat suposatuko luke eta dena batera irakurtzea litzateke egokiena, baina aldizkari hau monografikoa ez denez, eta hiru hilabete behin argitaratzen denez, egokia iruditu zaigu, nahiz eta zatikatu eta itzulpenean bere kutsua piska bat galdu, merezi zuela ahalegin bat egitea, eta zuei esperientziaren berri modu honetan ematea.

Lehenbiziko bi gutunekin uzten zaituztet, bestea hurrengo aletan ateratzen joango da.

TERE CASILLAS ETXEBARRIA

Kaixo Memo:

San Pablon, 1982an.

Hemen nago San Pablon, heldu berria naiz. Ez dakit alde hau ezagutzen ote duzun; Erdi Magdalena herrialdean dagoen herritxoa da, bere portuaz ezin daiteke esan jendea hartu ala azken agurra ematen ari ote den. Ezin daiteke esan bukatu gabeko eraikuntza ote den, ala amaitu gabeko desegitea.

Dena dela, portu honetan bizitasun gehiena dutenak, "pelaos" deritzan gaztetxoak dira, egin gabeko giharrekin eta muskurtutako azala dutelarik, nahiz heldu nahiz abiatu farrez hartzen zaituztenek.

Maletak hartzeko borrokatzen zirenetatik, bat, azkarrena, aurreratu zen eta nire paketeak hartu, baina hainbeste zirelarik besteekin elkartu beharra izan zuen gurditxoa hartu ahal izateko.

Heurek esaten dutenez, ez dute, ez dirurik ez astirik eskolara joateko.

Haurren eskubideak defenditzen intelektual mundu batetatik etorrira, portutik "pelao" hauekin identifikatzen hasi nintzen.

Esplotatuak eta askatuak, nutrizio txarrekoak eta hirietako haurrak baino dieta fresko eta naturalagoak jaten ikusten nituen. Asfaltatu gabeko kale nagusian bere ohin utsen mina, zapatak behar ez dituenaren lurra menperatzeko trebetasunaz kontrastatzen zen...

Bueno, esaten dizut nire barnean nahasten zirela irudiak: askatasunaren ezaugarri bezela ankahutsik defendatzen duten sikologi aldizkariak (noski moketa duten etxeetan), portuetako haur biluziak ofizina itxietan, askatasun naturalaren seinale bezela, nire alboko laguntzaileekin gonbaratzen nituen, hauen erropen hautsiak nahi baino askatasun haize gehiago pasatzen ustean zuten.

Horrelaxe, Memo, San Pablora iritsi besterik ez dut egin eta hain nahastua aurkitzen naiz, inpresio gehiago sartuko balitzait, ezingo nukeela pentsatzen ari naizen heziketa plangintza aurrera eraman.

Herria deskribatuko dizut. Portutik mendira doan karreteraren hasieraraino dihoan kale nagusia du, herria, alde bate-tik bestera pasatuz, bertan gaizki esaleek diotenez, ejerzitoa, koka, urrea eta gerrilariak hasten dira.

Kale hau, piska bat, herria ezagutzeko X izpiak bezela izango litzateke.

Norbera konturatu gabe, Magdalenako edozein tokitik datorrenari radiografia piloa egiten diote. Maletak, maletetan egon daitekeena, ibilera, hizkera, herrian dituen ezagunak... Trebeagoak, lanpostua eta poltsan daraman pesoen kopurua.

Portutik 200 metrotara kale nagusiaren "lau ertzak" daude. Hemen radiografia denen artean egiten den zerbait da. Mahaietan dauden emakumeek enpanadak edo sopak dastatzen dutenekin komentatzen dute, eta honela denen artean bisitariaren azken diagnostikoa ateratzen dute.

Lau ertzak pasa ondoren, eskuinetara, parkea azaltzen da, instituzio haundiak inguratzen dutelarik: polizia, telekomunikabideak, eliza, azoka eta "Matecaña", mila ekintzarako erabiltzen den lokala, hiritarren bilerak, dantzatoki bezela, taberna, eta batzutan joan zen mendeko pelikula bat edo beste botatzeko.



Lehen kontaktoa, hogei minutu baino gehiagokoa, bertako apaizarekin izan nuen, jesuita "chevere" zen, eta herriko enparantzan duen etxean gela bat utzi zidan, gauza hobeagoa aurkitu arte. Ez dut oso ondo ulertzen jende honek egiten duena, baina behean, azpiko gizamailetan daudenekin jartzen dena nahi eta nahi ez baloratu eta txalotu egin behar da.

Berak eman zizkidan herriaz lehen datuak: "9.000 biztanle dituen herri nekazaria da. Bere bilakaerarako beharko lituzkeen beharrezko zerbitzurik ez du, eta ohartuko zinen bezala kanporantz duen komunikabide bakarra (abio bat ez baduzu eta aireportu klandestinoetan lurreratu) ibaia da, txalupa, "johnson"a.

Elektrizitateak, funtzionatzen duenean, arratsaldeko 6tatik goizeko 6ak arte funtzionatzen du.


Irakaskuntzaz edo eskoletaz ere zertxobait komentatu zuen, eta esan zidan lehen mailako hiru eskola zeudela, nekazari eskola bat eta eskolatxo pribatu batzuk, baina hauetan egiten zena ez zuela oso ondo ezagutzen.

Portuan, enparantzan eta kale nagusian, auzoetan egon gabe, ikusi ditudan "pelaos" horiek ikusita, ez zait iruditzen honek, inolaz ere, bete ditzakeenik herriaren irakaskuntza beharrak. Galeanon esaldiak: "2000. urtean 650 miloi biztanle izango ditu Hego Amerikak, eta horien erdia 15 urtetara ez da helduko; denbora bonba bat", "zain irekiak" liburuan, izugarrizko gaurkotasuna edo aktualitatea hartu du San Pablon dagoen "pelao" piloa ikusita.

Hemen dauden heziketa edo irakaskintzak bitartekoak, lore gehienak kanpoan dituen negutegi txiki bat iruditu zitzaidan, eta ez nekien negar ala farre egin, kanpoan hasten ziren loreak Sistimak gutxiago izaorratzen baizituen, bizitza moetak eragin gutxiago zuen beraiengan, kutsatu gabeko herrietan sartzen diren gizarte arrotzek ez baizituzten ikutzen. Beren harremanen freskotasuna gustatzen zitzaidan, eta Ivan Illich zetorkidan burura, eta zera pentsatzen nuen, hau izango ote da, bere eskola irekietan lortzen zen freskotasuna?; eta aldi berean haurren eskubideak bururatzen zitzaizkidan, zergatik ez zihoazen hauek eskolara? ez zutelako beren adimen teorikoa urratzeko aukerarik, eta bakarrik beren beso txikien bidez bilaka zitezkeelako.

Ikusten duzunez, kontraesanez beteta aurkitzen naiz, eta erantzun bat izatea nahiko nuke, baina galderak eta galderak besterik ez datozkit burura. Bueno, Memo, herriaren lehendabiziko inpresio honekin eta bere indar gazteekin utzi behar zaitut. Hurrengoan hemendik aurrera egindo ditudan gauzak komentatuko dizkizut, intelektualismoa eta errealitate indartsu hau nahasten diren puntuan nola aurkitzen naizen.

Tere



San Pablon, 1982an.

Kaixo Memo:

Berriz ere, letren bidez zurekin tartetxo bat pasa nahi dut.

Asko gustatzen zait zurekin dudan sensazioa, zuri zalantza guztiak lasaitasun osoz adierazten dizkizut, bere buruarengan zihurtasun osoa duen profesionala bezela agertu gabe, Hego Amerikak dituen irakaskuntza arazoetaz soluzio sendoak eman gabe.

Ez dakit ohartzen zaren, baina nire zalantzak ditut, nire zalantza serioak. Nire nahi eta ametsetan bakarrik dut zihurtasuna. Batzutan psikologiakin doktora bezela galdetzen didatenean liburuetan agertzen diren arazo ezberdinak konpontzeko erantzun eraginkorrez erantzuten dut, baina, tokiz kanpo gelditzen naiz, erreferentziarik gabe, teoria hauen eta errealitatean agertzen zaizkidan "herri behartsuen haurrak", "ikasi behar dutenek"... artean gonbaratze estudio bat egiterakoan.

Zenbat gustatuko litzaidake askotan halako hiztegi aberatsa ez edukitzea... loreari lore deitzea gustatzen zait eta denok ulertzen dugu, baina heziketaz hitzegiterakoan, bueno, zertarako...

Adizu, benetan zuri kontatu nahi nizuna zera da, nolako buruhausteak San Pablon etxeko bat aurkitzeko... Iruditzen zait herria ezagutzeko modu egokiena izan dela, ah!, gainera, kooperatiba ikastetxeko irakasle batek eta bere lagun batek auzoak ezagutzeko, herritik zehar, buelta bat ematera eraman ninduten, eta heuren ziotenez 35.000 biztanle ditu San Pablok, auzoak ere zenbatuta, baina nahiz eta etxeka, auzoka, familiaka... zenbatu, ez zait zenbaki hori ateratzen, 9.000 inguru baizik.

Ubide eta estoldak kale nagusian bakarrik daude, beste auzoetan, ur zikina pilatzen da kale bazterretan eta ura lortzeko asko iragazi behar da.

Concepción, San Pablito, Barrio Nuevo... auzoetatik ibili ondoren, Hego Amerikako "etorkizuna" deitzen ditugun "pelao" horietaz azterketa soziologikoa ari banintz bezela sentitzen nintzen.

Ez dakit nola adierazi hemen ez dagoela etxehertsirik, denak irekita daude, nire portuko lagunak praka puskatuak bezela, gogoratzen zara.

Pentsa ezazu ze zentru ezberdin duten "pelao" hauek mugetaz. Beren etxeek irekita dauden etxe horiek, ongi etorria ematen ari dira beti, ez bakarrik auzotarrei, arrotzei edo beste bailaretako nekazariei, baita ere katuei, txerriei, oiloei, zakurrei, txoriei, haizeari, eguzkiari eta lastozko sapai horietatik sartzen den euriari, dena buztiz, ohe eta sukalde, gero hain nekagarriak eginez gosariak...

"Pelao" horiek klasera lo egin gabe etorri dira beren etxeetan ura sartu delako, izan duzu inoiz halako esorientziarik?

"Pelao" hauekin euriak hitzegiteak, etxetik kotxera dagoen tarte hortan buztitzen diren horiekin hiz egiteak baino zentzu askoz ere ezberdinagoa du.

Kezkatu egiten naiz, "pelao" hauei irakastea zer izango ote den pentsatzean, ez baitut uste berdina izan behar duenik. Uste baitut ezberdina izan behar duela. Iruditzen zait liburuak ezin daitezkeela berdina izan, metodoak ezin daitezke berdina izan, eta hitzek ere ezberdinek izan behar dute.

Ah! Lehen ez dizut aipatu. Auzoak bisitatzen ari nintzela, San Pablon dauden 9 eskolatxo pribatuak ezagutu nituen, "piratak" Hezkuntza Ministeritzak deitzen dituen bezela, eta ez dakizu zein izan zen nire harriduna! bertan, eskolaurrea eta lehenengo maila ematen dute batzutan bigarrena ere bai. Kontraste handia suposatzen du hainbeste eskolatxo pribatu ikusteak, eta hiru ofizial bakarrik egotea.

Interesgarria egiten da konprobatzea hemengo eskolatxo pribatu hauek, beste toki batzuetan ez bezela, behartsuenek eta behartsuenentzat egiten dituztela. Andereñoa (hemen errealitate honetan, beti emakumea izaten da), auzoko "jakintsuena" izaten da. Uniformeak, liburuak eta Gobernuko eskoletan esijitzen den materiala oradain ezin dezaketen gurasoek eskatzen diote beren haurretaz arduratzea. Orduan, andereñoak bere etxeko gela bat (askotan lo egiten duten tokia izaten da), hartu, eta klaseak "eman ahal izateko egokitzen du", gero klasea bukatu ondoren bizitza normala egin behar da toki hauetan...

Andereño hauen pedagogia, heurak eskolara joan ziren urte gutxietan jasotakoa izaten da. Beren ezaugarri nagusiak ama izatea eta haurrak maitatzea izaten dira.

Beren metodoloian gauza asko nahasten da:

- Maitasuna.
- Pazientzia.
- Haur bakoitza onartzea, nahiz eta oso trebea ez izan.

Eta aldi berean:

- Metodo gogorrak
- Ariketak behin eta berriz errepikatzea haurraren bilakaera globala kontutan izan gabe.

Normalean bakarrik aritzen dira, eta beren lana hain gutxi baloratzen dutenez, ez dira beste inorekin beren esperientzia elkartzera eta lan baterakoia egitera ausartzen. Dena den, denengan ikusten da potentziatu beharko litzatekeen hobetzeko nahia. Baina hiriko jendea "potentziatzerako" gatozenez, ez dakit nola, baina "animali gisan hezi" egiten ditugu, eta heuren baloratzen genuena, galdu arazi egiten diegu.

Diru asuntoa oso gaizki dago hemen, hori kontutan izanik, horrelako sailkapen bat egin genezake hemengo haurrak harturik:

1. *Inongo ikasketarik egin ez duten haurrek (gehiengo bat da).*
2. *Ekonomikoki esijentzi gutxien duten eskola pribatuetara doazen haurrak (ez dute ez uniformerik ez libururik, ez antzerako ezer eskatzen).*
3. *Eskola ofizialetara doazen haurrak, baina irakurtzen eta idazten ikasten dutenean, bere familia lagundu behar dutenek etxeko lanetan, eskola oso goiz uzten dutenek beraz.*
4. *"Primaria" deritzana bukatzen duten haurrek.*
5. *Lanbide eskolan ikasketak bukatu ondoren etxeko lanetan aritu behar dutenak, komunitateak ezin baitu lan postu berririk sortu.*
6. *Herritik alde egiten duten gaztetxoak, bai ikasketak jarraitzeko edo lan bila joaten direnak.*

Aurrekoan iapatu nizun etxe arazora bueltatuz, auzo batetan 2.000 pesoko bat lortu dut. Noski, denak bezela ez du ez urik, estolderiarik. Harriz eta lastoz egina dago. Lastozko sukaldea du, eta ez du telebistan agertzen diren erosotasunik, baina oso naturala egiten zait, eta uste dut hemen etzanda gustora filosofatu behar dudala.

Ura erabili aurretik purifikatu egin behar da. Komuna, lurrean dagoen zulo bat da. Dutxa, nire lagun batek zion bezela, eskubakarrekoa da, bestearekin goitik behera ura bota behar duzulako. Lurra, ahal duzun eran kendu behar duzu, eta ekintza guzti hauetan, lorategiko loreak zurekin daude.

Orain, dena berria egiten zaidanez, beti dut zerbait egiteko, eta gustora aurkitzen naiz, baina batzutan giro honen eraginez, presio haundia sumatzen dut bularrean, arnasa hartzea asko kostatuko balitzait bezela. Meazulo batetan sartzen arituko banintz bezela da, eta noizbehinka nire haizea faltatuko balitzait bezela, nire haizea kontaminatua. Konturatzen naiz, eta badakit, meazulo hortan gero eta barrurago sartzen naizenean, "aberastasunetik", "gauzen jatorritik" hurbilago nagoela, baina batzutan hestutu eta larritu egiten naiz.

Izugarria egiten zitzaidan, etxe bila ari nintzela, eta zerbitzutaz galdetzen nuenean, jendeak erantzutea: ah!, noski, zuk erosotasun guztiak dituen etxe bar nahi duzu ezta?

Ez zuten ulertzen ere beste familia batzuekin bizi nahi ez izatea, eta lagun batekin bakarrik bizi zela.

Ez dakit lagun hori ezagutzen ote duzun, Inma du izena, euskalduna da eta nagusien alfabetatze lanean ari da. Bueno, ba errealitate hauetan oso normala denez hiru, lau familia elkarrekin bizi zela sukaldea, patioa eta beste guztia bat eginez, nire nahiak harritu egiten zituen. Uste dut familiaz, intimitateaz, eta antzerako gauzetaz haiek duten zentzua, ni ohitura nagoena baino askoz ere zabalagoa dela.

Dena dela, askotan iruditzen zait arazo ekonomikoak eragiten duela, familia eta bizitokia, mugagabe, jabetzarik gabe bat egitea. Niri, nire ikasle garaia zetorkidan burura, bertan kabitzen ginen baino jende gehiago bizi ginenean pisu batetan, gehien bat dirurik ez genuelako. Hemen etxea beste batzuekin konpartitzea ez da epe batetarako, hemen bizitza bizitzeko modua da.

Etxea beste batzuekin banatzen da, batzuetan ama beste aita batzuekin (duenak noski). Anai-arrebak konpartitzen dira, etxeko gela bakarra, ohea...

Sikologiaren seksu iraultza, sikomotriz teoria, etab., gogoratzen ditudanean, eta errealitate hauek bizi, zerbait demostratu behar duten norbaitzuen teoria antzuak bezala ikusten ditut, eta ez naturala den zerbait bezala.

Ni ere, beste errealitate batzutan egonda, espresio askatasunaren garaipen horiek defenditzen aritu naiz, baina errealitate honetan, sapai berdinen azpian bizi direnek maitasun ekintzak eskaintzen dizkidatenean, harrituta gelditzen naiz, heurentzat normala den horrekin, niretzat eguneroko borroka eta eguneroko saiatze etengabea izanik.

Ze injustizia litzateke heziketa molde berdinak aplikatzea hain ezberdinak diren errealitateetan.

Adizu, Memo, ez litzaizuke interesgarri irudituko ze gizarte moeta sortuko litzatekeen ikustea, Hezkuntza Ministeritza deseginduko bagenu eta bere presupostua udaletxetan banatu, beraiek aurki dezaten bere auzo eta herrietako errealitateei erantzuna emango liekeen pedagogi alternatibak?

Zoragarria litzateke... Makina deshumanizante horrek zarata haundia aterako luke eta munduaren azken unea heldu zela pentsatuko genuke, eta ez genituzke izadi guztiaren askatasun oihuak onartuko.

Utzi behar zaitudala uste dut, eskuak letrak egiten hainbeste dantza egin ondoren nekatzen ari baizait, dena den, hain gogo sakona dut ez nuela inoiz amaituko. Eskolatxo pribatuen argazki batzuk bidaltzea gustatuko litzaidake, baina ez dut bat ere.

Muxu bero bat laister idatziko dizut berriz.



Zer dute haurrek irakurtzeko?

ESKOLAURREA

APURRAK SORTA - ELKAR

Pepi	Ai nire hatzak	
Miau	Lehoia	
Aitaren pipa	Nire zopa	
		Bakoitza 70 pzt.

TXIRIBIRI SORTA - EREIN

Ai Leire, Leire	125 pzt.
Nikolas Mikolas	125 pzt.
Sorgin bat aidean	125 pzt.
Margoak	175 pzt.
Zenbakiak	175 pzt.
Txomin eta Txomintxo	175 pzt.
Itziar eta Antton	175 pzt.
Zarauzko balearenak	150 pzt.
Pasaiaiko herritik	150 pzt.
Scarry-rekin - 6 ale (bakoitza)	200 pzt.
Mintza - Ipuin mutuak - 15 ale (bakoitza)	250 pzt.
Txiribiri bonbon (irakur 0)	375 pzt.

LEHEN IRUDIAK, LEHEN HITZAK - GORDAILU

Pertsonaiak	Ikastola	
Etxea	Hiria	
Janaria	Bizibideak I	
Jantzia	Bizibideak II	
Jostailuak eta jolasak	Dendak	
Animaliak	Lorategia	
Ibilgailuak I	Landa	
Ibilgailuak II	Ipuinak	
Gida - liburuxka		Bakoitza 60 pzt.
Kaxa (bakoitza)		80 pzt.
Batxuri		50 pzt.
Nire lehen hitzak euskaraz		700 pzt.

NIRE LEHEN HITZAK - EDINORTE

Hiria	Bidaiak	
Oporraldiak	Baserria	
Ikastetxea	Etxea	
		Bakoitza 135 pzt.

TEO ETA BERE INGURU SAILA - TIMUM MAS

Teo trenean	Teo zoo batean	
Teo barkuan	Teo elurretan	
Teo hegazkinean	Teo etxean	
Teo baserrian	Teo ikastolan	
Teo zirkoan	Teo kanping e. doa	
Teo erosketak e. doa	Teo oporretara doa	
Teo eta bere txakurra		
		Bakoitza 410 pzt.

ZESAR ETA ERNESTINA SAILA - TIMUM MAS

Zesar eta Ernestina Gedeonen bila
Zesar eta Ernestina musikari kalez kale
Zesar eta Ernestina argazkilariaren etxean
Zesar eta Ernestina mendira doaz

Bakoitza 400 pzt.

HASERA ZIKLOA

HAURREN ESKUBIDEAK - EDICIONES VASCAS

10 liburu (guztira) 8.000 pzt.

LILLURAZKO ZOOA - EDICIONES VASCAS

Hontza	Kanguroa
Gorila	Elefantea

Bakoitza 290 pzt.



SANTILLANA

Aingura 1 525 pzt.

AXULAR

Eguzkilore irakurgaiak 325 pzt.

EREIN

Txilibitu danbolin (Irakur 1) 400 pzt.



LA GALERA

Eguneroko gauzak 1	280 pzt.
Eguneroko gauzak 2	280 pzt.
Eguzki ibiltaria	300 pzt.

G.I.E.

Beleko eta biok	70 pzt.
Asto baten malura	100 pzt.

SOPENAREN MARGO EDERDUN IPUINAK - EDINORTE

Lapurraren azken txarra	Simon Lelo	
Tximu dantzariak	Amatxo	
Atso gaixoa	Nekaneren gora beherak	
Asto-narru	Iturriko maitagarria	
Bi konejutxoak	Mitxitxu eta Mitxita	
Katu borrokalaria	Tximadun erregea	
Kali	Petronila lela	
Txikito	Gaztelu ezkutua	
Lagun zintzoa	Laila eta Aixa	
Bizar urdin	Edurzuri	
		Bakoitza 45 pzt.

GABON BILDUMA - EDINORTE

Kastoren familia	Hiru txerrikumeak	
Lehoia eta bere familia	Kuku kanguroak	
Ahatearen famili	Non daude pandak	
Hartz zuria	Kirikiño jauna	
		Bakoitza 60 pzt.

IKUSKARI SAILA - EDINORTE


Errauskine	Oskidun katua	
Erpurutxo	Sinbad marinela	
Xagueme kaskarina	Hiru txerritxoak	
Alizia mundu zoragarrian	Ali Baba eta 40 lapur	
		Bakoitza 65 pzt.

MARGOEKIN JOLASEAN - EDINORTE

Zuk margotu	Ni bai artista ezta?	
Bai margoztu ere	Artearekin jolasean	
Margoekin ametsetan	Ze pozik margotzen	
Zein ederra den margotzea	Ospetsu izateko 1. pausoa	
Ni margotzen z. naiz	Margolari izateko jolasten	
Nire lehen margoak	Artearen bidean	
Artista bat jaio da	Margolari ospetsu izateko	
Artista h. b. izango naiz	Egunen baten artista izateko	
		Bakoitza 45 pzt.

IPUIN TROKELATUAK - EDINORTE

Pinotxo	Amarentzako oparia	
Hondartzan	Loti ederra	
Manueltxo	Oporretan	
Nekazaria eta deabrua	Txakurtea	
Ahate Itsusia	Hiru Txerritxoak	
Jon Babazalea	Txano Gorritxo	
Soinulariak	Sagutxu Harroa	
Berunezko soldadua	Esne saltzailea	
		Bakoitza 45 pzt.



LUMABELAR SAILA - ELKAR

Lamia eta artzaina	Martin txiki eta jentilak II	
Kixmi eta azken jentilak	Tartalo eta artzaina	
Orreagako burruka	Marigorringo eta harra	
Martin txiki eta jentilak I	Oier beltzuntzeko	
		Bakoitza 60 pzt.

HASERA ETA ERDIKO-ZIKLOAK

EREIN

Negua	Udaberria	
Uda	Udazkena	
		Bakoitza 300 pzt.
Erniokq Ziripot		400 pzt.

HORDAGO

Herriale Berdea	275 pzt.
-----------------------	----------

S. M.

Haurron gauzak	231 pzt.
Mundu txiki	297 pzt.
Txori orlegia	264 pzt.
Ameskeriak	440 pzt.

SANTILLANA

Aingura 2 eta Aingura 3	575 pzt.
-------------------------------	----------

GORDAILU

Euskalerriko Ipuinak	150 pzt.
Mikel, Miren eta Txantxangorri (uda)	75 pzt.
Dordoka	75 pzt.
Ardia	75 pzt.
Barrezka	75 pzt.
Euskalerria - Geografia - Historia	450 pzt.

LIS SORTA - MAVES

Edurtxo	Gulliber gizontxoan herrialdean
Erpurutxo	Asta-larru
Haustertxu	Ali-Baba eta 40 lapurrak
Oskidun katua	Txano gorritxo
Pinotxo	Arratoitxo kaskarina
Urrezko arrautzak errutzen zituen oiloa	Hiru hartz eta ilegorri
Xokolatezko etxea	Loti ederra
Berunezko soldadutxo	Hiru txerrixoak
Ahate itsusia	Otsoa eta zazpi ahuntzak
Jostuntxo ausarta	Hamelingu txistularia
	Bakoitza 80 pzt.

2 Ipuin ezagun (birpizkunde sorta)


Aladino eta kriselu miragarria / Katu botaduna	
Jostuntxo azkarra / Edurne zuri	
Txokolatezko etxea / Xagueme perxenta	
Erpurutxo / Txano gorritxo	
Oihaneko printzesa lotia / Enano saltaria	
Mari Errauskin / Ali Baba eta berrogei lapurrak	
	Bakoitza 85 pzt.

2 Ipuin ezagun klasikoak

Erpurutxo / Enano saltaria	
Aladino / Katu botaduna	
Jostuntxo ausarta / Ali-Baba eta 40 lapurrak	
Txokolatezko etxetxo / Arratoitxu perxenta	
Mari Errauskin / Edurne zuri	
Txano gorritxo / Loti ederra	
	Bakoitza 85 pzt.

MIRARI SORTA - MAVES

4 Ipuin klasikoak 1	
4 Ipuin klasikoak 2	
4 Ipuin klasikoak 3	
	Bakoitza 375 pzt.



LOTO SORTA - MAVES

Edurnetxo / Gulliber	
Erpurutxo / Asta-larru	
Haustertxu / Ali-Baba	
Oskidun katua / Pinotxo	
Txano gorritxo / Arratoitxo kaskarina	
Xokolatezko etxetxo / Hiru hartz eta ile gorri	
Loti ederra / Urrezko arrautzedun oiloa	
Hamelingu xirularia / Jostuntxo ausarta	
Ahatetxo itsusia / Otsoa eta zazpi ahuntzak	
Beraunezko soldadutxo / Hiru txerrikumeak	
	Bakoitza 375 pzt.

LAIDA SORTA - TURQUESA

Loti ederra	
Hiru txerrikumeak	
Zenizienta	
	Bakoitza 175 pzt.

BENJAMIN BILDUMA - EDICIONES VASCAS

Hiru lagunak	190 pzt.
Txerrixoaren ezkontza	190 pzt.
Mamu iletsua	190 pzt.
Hau hezur pila	190 pzt.
Jeiki Grizzli Gabonak dira	190 pzt.
Pandaren bidaia	190 pzt.
Peru eta otsoa	240 pzt.
Botilaren barruan	215 pzt.
Sudurra	
Errege sega-potoa	
Lehortu ontziteria	



ERDIKO ZIKLOA

IKASTOLA LIBURUTEGIA - GORDAILU

Insektuak	Narrastiak eta ur-lurtarrak
Ugaztunak	Burdina eta Altzairua
Industria	Laborantza
Arrantza	Artzantza
Edariak	Janariak
Euskal Herriaren Historia I	Haitzuloetako euskal gizona
Orreagako gudua	Goiherri
Durangaldea	Gasteiz
Baztan-Bidasoa	Lapurdi Itsas-Hegia
Iparragirre	Jose Paulo Ulibarri

Bakoitza 75 pzt.

ELKAR

Euskal Historian Zehar	350 pzt.
Ganixen ahuntza	100 pzt.
Hiru uhainak	100 pzt.
Oxobiren alegiak	200 pzt.

ZABALTZEN

Nikolasaren abenturak	350 pzt.
Ramuntxo detektibea	350 pzt.

GEREÑO

Euskal Herriko ipuin eta kondairak	300 pzt.
--	----------

G. I. E.

Ipuin miresgarriak	450 pzt.
Lapur zuriak	450 pzt.

AUSKALO SAILA - EREIN

Tristeak kontsolatzeko makina
Portzelanazko Irudiak
Gizon kabalen piurak

Bakoitza 300 pzt.

ALFER SAILA - ELKAR

Kapitan Piloturen Airontzian	130 pzt.
Kapitan Pilotu, ttikittin eta Gorritto	130 pzt.
Txintxinboi eta Txantxanbai	130 pzt.
Xoxolo, Moxolo eta Ttottolo	130 pzt.
Manuel Artzaiaren zazpi ardiak	130 pzt.

EREIN

Lotara joateko ipuinak	500 pzt.
------------------------------	----------

HERENSUGE GORRIA BILDUMA - ARGOS VERGARA

Erraldirik altuena
Marta eta Mikel
Ez dago, eraman egin dute
Guenkel
Bi marrazkilo
Elefante beldurtia
Itzal-Saltzailea
Aintzirako sekeretua
Esku batez eguzkia eta besteaz ilargia
Jejeinua

Bakoitza 180 pzt.

ERDIKO ETA GOIKO ZIKLOAK

AXUT SAILA - ELKAR

Mari Zikin	250 pzt.
Gizon harrigarriak	250 pzt.

KIMU SAILA - GERO - MENSAJERO

Euskal Literatura I	300 pzt.
Euskal Literatura II	275 pzt.
Antso Gartzetz	275 pzt.
Euskal Literatura III	275 pzt.
Amaia	390 pzt.
Euskal Literatura IIIxx	360 pzt.
Izarren begietan	275 pzt.
Eneko Haritza	300 pzt.
Buruntza azpian	350 pzt.
Kattalin Erauso	260 pzt.
Gillen Tell	260 pzt.
Goi-mendietan zehar	360 pzt.
Harkaitz	350 pzt.
Lurraren bihotzeraino	310 pzt.
Moby Dick	380 pzt.
Euskal Herriaren Historia I	275 pzt.
Euskal Herriaren Historia II	380 pzt.
Belartzelaiko mutikoteak	275 pzt.
Hirugarren atalak (Bitaño)	275 pzt.
Ipuinak I (Bitaño)	275 pzt.
Elizondoko eskutitzak	380 pzt.
Indieta beltza	350 pzt.
Ipuinak II (Bitaño)	190 pzt.
Nafarroako Ezkurran	210 pzt.
Bihotzaren ritmoan	300 pzt.
Munduari ingurua 80 egunetan	400 pzt.
Ipuinak III (Bitaño)	200 pzt.
Aldarte oneko ipuinak	250 pzt.
Donostiarrok txantxetan	250 pzt.

ITZUL SAILA - ELKAR

Txirbel (Peter Hartling)	280 pzt.
--------------------------------	----------



GÜAY DEL PARAGÜAY

Kanuto piloa erre ondoren eta nonbaiten taberna zahar batetako makina batetan jokatzeko ari nintzen (bilar horietakoa, ezagutuko duzu), bai, noski, irakasleok egiten ditugu horrelakoak, nahiz eta guraso eta irakasle batzuk eskandalizatu, nahiz eta heurak majo jarri kubatak eta antzerako "estimulanteak" hartuz. Bueno, ba esaten nizuen bezala makina horretan ari nintzen jolasten...

Zihur aski ezagutuko duzue makina hori "billar americano" esaten diote eta sei bola zulo ezberdinetan sartu behar dira zuk duzun beste bola batetaz baliatuz. Zulo bakoitzak zenbaki bat du eta bolak beste bat, biak bidertuz ateratzen zaizu bakoitzean puntuazioa. Zuk bola zuzendu eta botoi bati eman behar diozu.

Bueno zuek, hori da mekanismoa, erreza ezta? Ez zaizue iruditzen nonbaiten ikusi duzuela antzerako zerbait?

Lehen esan dizuedanez, ostirala zen, eta ez nuke esango zenbatgarren kanutoa neraman, baina oso pozik eta alai sentitzen nintzen. Dena dela, bolatxo haiek... umeak... irakasleak... gurasoak... grebak... Gobernua... joño! Ba... ez dakit horrelako asoziatze arraro bat bururatu zitzaidan.

Ni txikia edo umea nintzanean, irakasleak "billar" normaletan erabiltzen ziren makilen antzerakoak eramaten zituzten, eta majo erabili ere, barra, barra erortzen zitzaizkigun kolpeak, eskua itxita, hatsak gorantz, bizkarretik behera... bueno badakizue oso gama aberatsa zen. Orain, noski, makila horiek apenas ikusten dira, irakaslea ez da Don Jesus eta gehienetan bakeroak, petoak eta fularrakerabiltzen ditugu, ez dakit zer baino progreaioak gara... Gurasoak zer esanik ez, ikastolara eramaten dituzte haurrak, pedagogiaz arduratzen dira eta en la bilera de la gela hablan con el andereño...

Denok pedagogi hobe baten alde lanean ari gara, eta Euskal Gobernuak, Gurasoen Federazioa eta antzerakoek, programa modernoak egiten dizkigute edo konbenio jator batzuk eskaini.

Bueno, ba hori, hau Jagüay dela eta lan "gogorra" egiten ari garela.

Buelatu gaitzen hasierako bilarrera, botoitxo bati eman eta bolatxo barrura, 500 puntu; beste botoitxoari eman, eta gelan sartzeko tinbrea, 700 puntu; beste bati eman eta irakasleen bilera, 800 puntu; beste bat eta konbenioko greba, 1300 puntu...

Tartean, gelan 35 haur, irakasleak 30 urte 1050 puntu; klaseak irailaren 2 hasi behar, 6.000 irakasle greban, 12.000 puntu; ikastolak ente publikoak dira, gurasoak 5.000 pzta. hilean ordaintzen (jestioa, matrikula epeak Gobernuak markatzen dituela, irakaslegoaren egoera, programa berrituak... alde batera utzita), 11 hilabete urtean 55.000 puntu...


Eta horrela "partida" egin arte, eta partida egin ondoren berriz jokatzera. Güay, titi, güay del Paragüay.

Baina guzti hori ez da nahikoa. Gobernuaren jarrera, gurasoen "konpromiso sakona", haurren erabiltze jatorra bolatxoak balira bezala... hori ez zen nahikoa, eta orain urteak, kutsoak, 11 hilabete ditu, oporretan ez da produzitzen, greban galdutako orduak errekuperatu egin behar dira kobratu nahi badira... baina hori ere ez da nahiko. Eta bilarreko makila astuna baino gauza arinago bat aurkitu behar zela lehengo eta horra hor aurkitu dutela, hor duzue ITE!

Makinatxoaren bidez haurra programatzeko, irakaslea zenbaki gabeko bola zurian bihurtzeko eta gurasoek, makina hori izorratzen denean konponduko duten elektrizistak izan daitezten... Ah! noski, Gobernuak eta ente ofizialek makinatxoaren monopolioa izango dute.

Bueno zuek, guzti hori pentsatu ondoren eta noski "partida" egin gabe, utzi dut makina eta beste "purotxo" batekin enrollatu naiz, nahiago dut horrela, nik ez baitut "elektroniko" bezala etorkizun gehiegi eta egia esan da kanutoak erretzea, güay del Paragüay da, akonjantea.

Litografías Txubillo



NORA GOAZ BIDE GALDU HONETATIK?

Sortu berria zaigun ISILIK aldizkariaren aurrean jarririk ezin inola ere isilik egon.

Azkenean Ikastoletako irakasleok badugu gure eritzi, kezka, kritika, asmo e.a. adierazteko leku berezi bat.

Zer da Irakasle Elkartea? Zer egiten du? Non bizi da? Horrelako galdera asko entzun izan dugu sarritan.

Oraingoan bizi seinale ozenak eman dizkigu eta jadanik ISILIK aldizkariaren bi ale eskuartean ditugu.

Ea bada, irakasleon lokarri eta gure Elkartearen oinarri bihurtzen zaigun isilik ez irauteko sortu zaigun aldizkaria.

Hori horrela dela, irakasleon koordinaketa eta elkar-tzeaz zenbait gogoeta agertu nahi nituzke.

Badirudi, azken urteotako bilakabidea dela, Ikastolen Estatutoa dela, Komenioa dela, irakasleon ordezkari-tza dela e.a. noraezean gabiltzela gure etorkizuna zihur-tsunik gabe nabari dugularik.

Duela zenbait urte elkarren berri gehiago izaten genuen, horretara gehiago saiatzeko bait ginen eta Elkartea bera ere nahiko lotura sendoa genuen.

Ikastolak "monstruo" bilakatzen joan diren neurrian eta nolabait instituzionaltze bidean sartu direnean, bakoitza bere kabitxoan sartu gara, urtean behin kabiko epeltasuna utzi eta kanpoko freskotasuna, askotan noraezean, dastatzera irten nahiz bezala. Norbaitek esango lukeen bezala, "funtzionariotzen" ari gara.

Giro honetan Ikastoletako Irakaslegoari arazo asko sortu zaizkio: bere ordezkari-tza, komenioa, Estatutoa...

Baina bapatean irensteko gehiegi nonbait eta lozorro bidea hartu dugula dirudi. Horrela, halakoren batetan zerbaiten soinu miresgarriak eraginda bezala, lozorroa utzi eta bapateko ekintzei (arrazoizkoak noski) lotuko gaitzaizkie agian gure ohizko ekintzak bailiren.

Adibidez azken urteotan eta batipat komenio negoziaketan, hala gertatu zaigu behintzat. Egun gutxi batzuetako ekintza horiek bakarrik izan dira "elkarturik" egin ditugunak, elkartze hori zenbaitetan hala moduzkoa izan bada ere. Badirudi irakaslegoaren zati batek arrazoi batzuetara greba egiteko eta beste zati batek beste arrazoi batzuetara berdin jokatzeko. Talde bat hemen biltzen zen kriterio batzuren arauera eta bestea han, bere erizpideen arauera, hau ere noski.

Bi taldeon adierazgarri eta bultzatzaile bezala, Ikastole-tan diharduten bi sindikatu nagusi izan dira.

Eman izan diren ekintzarik nagusienak, gehienetan presakakoak eta azken momentuko informazio bidez erabakitakoak izan dira. Jokabide honek ekintza baterakoiak asko murrizten ditu eta negoziatzaileak (federazio, Jaurilaritza) gehienetan honetaz konturatzen dira eta orduan izaten dira kontuak.

Hau horrela planteiaturik galdera bat sortu ohi zaigu: "Nor da jokabide honen errudun?"

Askotan errudun bakarra aurkitzea oso zail izaten da, izan ere "errua" oso banatua egon ohi bait da gehienetan.

Dena dela, galdera bestelakoa izan behar luke: Zer egin behar dugu?

Irakasleok oso komodo bihurtzen ari omen garela entzuten dugu eta arrazoi dute hori diotenenek. Eritzi hau irakasleon artean entzun ohi da sarritan eta zerbait esan nahiko du.

Agian, gure gizartearen bilakabidea ikusirik, oso egoera normaltzat har genezake hau, beste gizarte sailak ere jokabide berdinean erori bait dira.

Lehen urtetako "Ikastolagintzan" irakaslegoak partai-detza handia izan du eta orain instituzionaltze bideak urratzen hasi direnean, bakoitza bere lekuan gorde da, lehen aipatu bezala, eta zer gertatuko ote den zain gaudela dirudi. Orduan berriro "altxatuko" gara edo agian lehenean geldituko gara, alferrikakoa izango dela pentsatuz.

Arazo guzti honen azpian informazio falta nabaria agertzen da. Ez gara deusetaz enteratzen. Alde batetik irakasle-andereño bezala, oro har, gutxi saiatzeko gara informazio bila. Bestetik infraegitura apur bat duten taldeak ere (sindikatuak kasu honetan) batipat afiliatu mailan gordetzen bide dute informazioa eta Ikastoletan afiliatu gutxi dagoenez, gehiengoa hor dago geldi.

Beraz, informazio iraunkor baten bila joan behar genuke, baina... Nola?

Horretarako ISILIK aldizkaria baliagarri gerta dakiguke, baina irakaslegoaren gehiengora iritsi beharko luke lehenbizi. Hala eta guztiz ere, ez litzateke nahikoa izango. Zer gehiago egin daiteke? Benetan zaila da asmatzea eta pesimismora jotzeko arriskutan gaude.

Sarri esan izan dugu, asko garela eta edozein modutan ez digutela ziririk sartuko. Baina ekintza orokorretan orainarteko "baterakoitasuna" eta inprobisazioa agertzen badugu, ez dakit zer molda dezakegun.

Gaur egunean, hemen aipatzen dena lortzea, agian gehiegi izango da, baina pentsa dezagun gerta daitekeenaren errudun geu izango garela.

Garbi dakusagu, une batzuetako beroaldiek soluziobide tinkoak nekez eskain ditzakeela, baina bestalde beroaldi "iraunkorra" lortzea ere nahiko zaila da gaur egun.

Benetan ez dakit nola jokatu beharko genukeen. Inork erantzunik balu eskertuko genuke orrialde hauetan agertuko balu. Hain zuzen hauxe da gogoeta eskas hauen nahia, hots, ea denon artean gure etorkizunari buruzko eritziak jasotzen ditugun.

BEJONDEIZUELA

"Isilik" pedagogi aldizkaria kaleratu zaigu. Noizbait izan behar eta oraintxe. Hara hemen egia bihurtua aspalditik zegoen asmo eta beharra. Beti utzi eta utzi, azkenik norbaitek heldu dio.

Pozik hartu dugu berria, laster ikusi nahi izan dugu beronen edukia. Badu nahi duenak pedagogiaz zer irakurria eta euskara hutsean gainera.

Zerbait idatzi gabe, nire eritzi batzuk agertu gabe ezin egonik, honelaxe nahi nuke mintza jaio berria den aldizkariak, inor anima badadi anima dadin nire hizkien bultzadaz, besterik ez bada ere.

Isilik hau, eskuratzen dugun pedagogi aldizkari bakarra ez dela badakit, lehendik ere bai bait dugu guregana heltzen zaigun bat baino gehiago, Katalunyatik batik bat. Orain arte (eta aurrerantzean ere jarraitu beharko dugu) kanpokoez baliatu izan gara dagokigun pedagogi arloaz jabetzeko. Baina, poz-atsegina, asmo berri-sendoa, kemen-hats garbia sortzen du, niregan behinik behin, gure lur atsekabetu eta indar murriztu honetan sortutako kultur-pedagogi aldizkari euskaldun jaio berriak.

Eskutan hartu dudun unetik, harritia eta bide batez pozez gainezka jarri naiz, ez bait nuen gure herrian eta irakaskuntza lanean dihardugunon artean jadanik honelako aportaketa bat burutzeko gai ginenik ere uste. Forma aldetik txukun, gai aldetik zabal eta eduki aldetik seriotasunez betea iruditu zaidala badiot, ez dut gezurretan ari naizenik usteko. 1. aleaz dihardut, noski, O. alea (ale berezia) aldizkariaren ate irekitzaile bezala ikusi bait dut, Torinoko pedagogi esperientzia aitzakiaz harturik (ez dut, honekin, interesgarria ez denik esan nahi, ordea, ezta gutxiagorik ere).

Bestalde, eta hiruilabetekaria izatean, nahiko denbora gelditzen zaiolakoan nago irakaslego, nahiz beste edonori, bertako edukiak era patxadatsuan irakurtzeko. Eta hau badiot, zeragatik da: gure ingurune deseuskaldun honetan joera handiegia bait dugu, eta dugu diot guk irakasleok ere halakoxe joera dugulako, bai erderara jotzeko, bai erdal liburu eta aldizkarietatik informazioa jasotzeko (euskaraz ez dago asko, baina dagoenari ere askotan muzin), zerbait irakurtzen hasten garenerako denbora urria izateagatik eta euskaraz izatean ulermen aldetik ere bai bait ditugu zailtasunak, errazenera jotzen dugu, protxugarriago-zabalago-sakonago-zuzenago-arinago delakoaren baitan. Eta, honegatik, beldur naiz jendeak (baita lkastoletan lanean diharduenak ere) euskara hutsean egoteagatik ez ote duen alde batera utziko. Baina hasera beretik ez nadin pesimistegi jarri eta denbora mintza bedi errealitateaz. Oker banengo hobe.

Gainera, pedagogi informazioz gain, euskal kulturgingintzan ere hondar ale bat gehiago delakoan nago gure hondartza kutsatuan, eta hau ez da gutxi. Erraza bait da, egun, efektibitatearekin ezkonduaz erdara hutsera edo eta bihizkuntzetara jotzea. Euskara hutsean argitaratzeak badu Irakasle kopuru handi batenganako muga, baina honela egoteak, baitaere, bultzada bat suposa dezake euskararen errekupeketa borrokan. Honek saiatzea eta animatzea eskatzen du.

Aldizkari honen pisua beregain hartu dutenei, hasi duten lanean desanimaziorik gabe aurrera jarrai dezaten eskatzen diet, behar-beharrezko bait dugu gure lkastola-Eskola-lkastetxeetan ematen ari den pedagogi prozesua aldizkari batetan jasoz joatea eta kanpotikoen berri ere izatea.





Hementxe dugu posibilitatea eta bertan behera uztea (aurreko beste batzu bezala) penagarria litzateke.

Bejondeizuela eta jarrai aurrera. "Isilik" bai, baina isilik ez.

Andoni Zabala



HAURRA SORTZAILE DENEAN



● Uholde haundienak ere, tantoz osatzen dira.

PAGOA

Behin batez, Jainkoak dakien lurralde eder batean, txoriek abestu eta erleek ezta egiten zuten leku zoragarri batean, bazen Pago zahar eta handi bat. Pagoan, txori askok zuten beren habia, landare askok beren sortzea eta abere askok bertan etxea.

Gure Pago zaharra oso aberatsa zen eta lurralde denek beren menpean nahi zuten hartu gure Pagoa.

Urte asko pasa ondoren, lurralde batek menperatu zuen. Lurralde hau oso pobrea zen eta bertako animalia, landare eta hegaztiak gure Pago zaharrera joan ziren.

Pagoko bizidun zaharrak zapalduak sentitzen ziren eta beren ohitura, lege eta hizkuntza baztertuta geratu ziren.

Pagoan jende gehiegi zegoen eta, egun batez, Pago zaharra erori egin zen eta bizidun zaharrak eta berriak denak gaizki bizi ziren.

Bizidun zaharrek ez zuten etsi eta Pagoa igotzen hasi ziren poliki-poliki, borroka eta lanaren bidez, eta ez dute etsiko Pagoak leku libre bat izan arte eta txoriek eta ardiek esnea eman arte.

IÑAKI SALEGI, 2. etapa

HAURRAK BERTSOLARI Erdiko Zikloa

*Oh larros zuria!
zu oso ondoan zaude,
oh larrosa!
atoz nire bila!
Bai larros gorria,
zu zara nire lorea,
nik maite zaitut.
Ez, beste lorerik,
ez dut beste lorerik
maitatuko.
Zu zara loreetatik
erregina.
Politetatik
politena.
Nik emango nizuke
bihotza,
zure edertasunagatik.*

*Orain pobrea zara zuhaitza,
baina lehen zinen aberatsa.
Gizonek moztu eta hil zaituzte
haxe bai dela latza!
Baina lehen fruitua jateko
botatzen zizuten gatza.
Zure bizilekua mendia da
eta ez hondartza.
Lehen bezala nahi duzu bizi
edukita ondoan baratza.*

*Mendian aurkitzen da
belar guztien tartean,
usaidun landare bat
guztietan ederrena.
Larrosa zoragarri,
zuk duzu bihotza,
eguzkia aurkitzean
bizitzeko poza.
Zeruan zauden larros zuria,
larros ederra, eder ederra,
itxoin eta itxoin;
aspertu naiz larros zuria,
nire ametsetan larros zuri
polit bat ateratzen zait,
ni hiltzen naizenean
zure bila igoko naiz.*

(Itziar eta Ivan)
4. Maila

(Josu)
5. Maila

(Izaskun - Ibon)
5. Maila

ELURREZKO PANPINA ETA ELURRA

Behin batean, bi mutikok elurrezko panpin bat egin zuten. Panpina metro batetakoa zen. Txapel bat bere buru hotzean zuelarik. Aurpegian, begiz, bi botoi txuri zituen, azenario bat sudurraren lekuan eta, makiltxo bat ahoz. Eskutan, erratz bat ipini zioten eta lepoan, bufanda bat. Bufanda txuri gorri bat zen, eta erdian "Julen" jartzen zuten. Beraz, Julen zen panpinaren izena.

Mutilek panpina bukatu zutenean, alde egin zuten.

Gaua zen eta hotz asko egiten zuten. Bapatean... gnomo edo bufo txiki bat azaldu zen.

—Julen!, Panpintxo! —esan zuten gnomoak. Hau oso txikia zen, 15 zm. izango zuten. Txapel gorri bat, jantzi orlegia, galtzerdi txuri-gorriak eta zapata arraro batzuk.

—Julentxo! —jarraitu zuten gnomoak. Nere izena Katatoff da. Bihar, Udaberrian sartuko gara eta gure erregeak, Euskadiko panpinei bizia emateko esan digu, baina lege batzuekin. Lehenengoa: Bihar goizeko 12-etan, funditzen hasiko zara baina bitartean hemendik alde egingo duzu. Bigarrena: Elurrarekin bakarrik hitzegingo duzu, berak bakarrik ulertuko zaituelako. Eta azkenik, funditzen ari zarenean, berebil batek, bultzada batez, lehen bezala utziko zaitu. Orain Julen, agur esaten dizut.

Hori esanda, desagertu egin zen.

Orduan, Julenen begiak argitu ziren eta elurrarekin hitzegiten hasi zen.

—Gabon, Elur jauna. Entzuten ahal didazu? —galdetu zion panpinak elurrari.

—Oaaa...!!! —egin zuten elurrak esnatzean—. Noski entzuten zaitudala. Ez nago gorra —erantzun zion elurrak.

—Mutikoei oso eskertua nago —esaten du Julenek—. Heurei esker bizi naiz.

—Ba, neretzat mutilak gaiztoak dira —esaten du elurrak—. Nire margo txuri polita zikintzen dute.

—Bai, egia da —esaten du panpinak—. Bai zuertea duela belarrak! Gu, Neguan bakarrik gaude eta bera, Uda eta Udaberrian, mendian egoten da, orlegia, dena alaitzen.

Eta hitzegin eta hitzegin aritu ziren.

Goizeko 12-ak heldu ziren eta Julen funditzen hasi zen. Orduan, berebela azaldu zen eta panpina airetik bota zuten.

Eluretan, txapela, bufanda, azenarioa, botoiak eta makiltxoa bakarrik gelditu ziren.

LARRAITZ TRINKADO, 10 urte

Ohi duen bezala aurten ere, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak opari bat banatzen du bere aurreratzailer gaztetxoaren artean. Oraingo honetan hiru kaset atera ditu, hirurak euskal abestiz osatuak: Kanta sortaileak; Euskal Rock; eta Haur abestiak. Nahiz eta berriak ez izan, oso aproposak eta atseginak iruditzen zaizkigu, haurra euskal musika entzutera ohitu dadin eta edozer ekintza egiterakoan laguntzaile egoki bezala har ditzan.

Euskal munduaz eta haurraz zer ikusia duen edozein ohar edo berri argitaratzeko prest gaudenez, hemen dituzue publikatzeko erreguaz Aurrezki Kutxa Probintzialetik bidali dizkiguten kaset hauen berri.



HARPIDETZA

Izen deiturak

Helbidea

Herria Tlf.

Adina Lanbidea

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez
 Kontu Korrontearen zenbakia

Sukurtsala (Ordezkaritza)

Aleka ordaindu nahi dut. Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna

(Sinadura)

canta con noyotroy -2-

EUSKAL ROCK



Club Juvenil - Gazteboan Elkartea

canta con noyotroy -3-

KANTA SORTZAILEAK



Club Juvenil - Gazteboan Elkartea

ISILIK

Plaza Amezketeta, 12 - 8.a F
DONOSTIA

Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia
egun eta gauez, edozein ordutan.



Ez al duzu izan inoiz diru-beharririk arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?

Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskaintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.



Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD
Txartela eska ezazu.

**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa

